





Lourdes Unzueta Zamalloa  
**UHARAK ZURE BEGIETAN**



LOURDES UNZUETA ZAMALLOA

**UHARAK ZURE  
BEGIETAN**

LABAYRU IKASTEGIA  
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

BILBAO  
2005

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© Egilea: Lourdes Unzueta Zamalloa

© Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa  
Aretxabaleta, 1-1.a  
48010 BILBAO  
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58  
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.  
Silutegia: Baster, S.L.L.  
Diseinua: Ikeder  
Azala: Daniel Tamayo

Lege Gordailua: BI-2716-05  
ISBN: 84-89816-25-5

**DOINU EDERRA DANTZUT  
OROIMENEAN**





Herrena nintzan txiki-txikitandik. Horixe da urrin-urrineko oroimenak dinostana. Behin betirako belarri-mintzetan grabatuta geldituko jatan hotsak, bere bidea egina eban belarri banean belarri-bikorrez belarri-bikor burmuine-tara heldu arteraino. Arrotzentzat doinu gozaka itza eitekeana, doinu ederra, doinu gozozan niretzat, nigaz batera joian doinu lagungarri konpasatua. Maite ez ninduenen belarrietara doinubakar urratzaile emoten ebanak, doinurik harreratsuen irudian maite ninduenen belarrietan.

Jaio nintzanerako entzuna eban amak doinu gozo berbera, igarri egin eutsan bai herrena izango nintzala. Orduko ha laugarren haurdunaldia eban gure amak eta beste hiruretan susmau ez ebana susmau eban neu sortu eta lasterrera.

Amaren sabelera, hasieran isurgai amniotikoaren uhinen bitartez, geroxeago nire hankatxoan euron eraginez heltzen ziran doinu hostek, orduko haurdunaldia, aurrekoan aldean, bestelakoa zalako susmobidea emon eutsien.

Sabeletik belarri eta garaunetara eta handik gero bihotzeraino zabalduko ziran uhinek, doinu hunkigarriaren melodian, lo-kantu samurra suertau jakozan eta behin betirako lorratza itxi eutsien oroimenean.

Nire erditzea ez ei zan erraza izan, holan entzunda daukat. Umerik gehienak datozan modura etorri beharrean, hau da, burua aurrera jaio beharrean, neure hankatxoak, neure hankatxo desorekatuak hain zuzen be, izan ziran mundu honetara agertzen lehenak. Odolarren eta minaren erdian argi egoan beraz nire nortasuna markatuko eban ezaugarriak, herrentasunak alegia, ez ebalala munduari aurpegia emoteko bildurrik.

Amak eta emaginak kontau deustienez, luzea izan ei zan erditzea, luzea harik eta neskatxoa nintzala ikusi eben arte, harik eta nire ulebako buru zuria agirian gelditu zan arte. Herrentasunak atzerarazten eban segurtasuna, gorputzaren beste atalek, nire buruak akaso, erakusten eben eta horrexek seguruenik luzatuko eban erditzea. Haurgintza minetan ama baino ez zan neure hankatxoen neurriaz konturatu. Erditzean ahulduta, indargabetuta egon arren, jazoten jakon guztiaz ohartu zan, emaginak eta auzoko andre batzuek zilborrestea ebagi, umea zapi zuritan batu eta bere

bularralde epelean pausatzen ninduen bitartean.

Haurdunaldi guztian zehar lagun izan eban lo-kantuarena inori kontau ez eutsan bezalaxe, orain be ez eutsan inori kontau bere ematututiko jarioagaz batera agertzen ikusi ebazan neurri desbardineko hankatxoena. Bion arteko lotura areagotuko eban isileko sekretua bilakatu zana harik eta nik ibiltzen ikasi arte, begirakune axolagabez begiratzen dabenek orduantxe baino ez ziran konturatuko-eta nire herrentasunaz.

Edoskitzaroa atsegina izan jatan oso. Hankatxoen atzerapenaz aparte, burezurra, pisua eta luzera neba-arreba zaharragoen antzerakoak nebazan, nire aurpegiak kolore ona erakusten eban, irribarre egiten neutsen, batzuei bai, beste batzuei ez, neure gustuaren arabera, neure orduetan hartzen neban ttittia, inork Miren, Mirentxu dei egiten baeustan, horixe baita nire izena, begiratu egingo neutsan. Umetxo baten-gandik gehienek itxaron ohi dabene guztia nik eskaini eta besteek hartu egiten eben.

Eguna eta gaua bereizten, aldi bakotxari egokona egiten, horixe izan zana gehien kostau izan jatana, hori be geroxeago kontau deustienez. Antza egunez nituen egiten jaterik bako lotaldirik luzeenak eta gauez jatan etorten ol-

getarako gogoia, eta etxekoen begizuloetan ikusi eitekean etsipena egunetik egunera handituz joian.

Ama izan zan horrezaz be konturatzen eta horri erremedioa jartzen lehena. Konturatu zanetik aurrera, gauero, besotan ama legez hartu eta kulunkatu egiten ninduan. Jaio aurretik sa-beletik iritsitako uhinek bihotzeko oroimenean grabatutako doinu gozoa kantamarmaritzuz kulunkatzen ninduan amak, eta behin loak hartu ezkeru sehaskan pausatzen ninduenean erritmo berberean eragiten eutsoen sehaskari haren eskuek. Hilabete batzuk lehenago berarentzat lo-kantu izan zan kantu berbera zan orain nire amesetarako lo-kantu, ama-alaben arteko hartu-emonak, lotan be, indartu eta erraztuko eban kantu berbera.

Hamalau hilabete bete nituenerako hankapuntetan jartzeko gai izan nintzanean, orduantxe hasi jatazan arazoak, lehenengo muturrez lur joteak, nire hankatxoak ez ziran mundua ezagutzeko neban jakinminaren esaneko eta. Nengoan lekuan nengoala bairudian guztia niretzako oztopo eta trabaz beteta egoala eta deskuidorik txikienean be, –egia esanda deskuidoren beharrizanik ez baneban be, nire hankatxoen ibilkera bera nahikoa zan-eta horretarako–, hantxe aurkituko ninduen, lu-

rrean jausita eta aurpegia negar anpuluz beteta.

Ama ahalegintzen zan ahalegindu bizitzako lehen pausoak erosoagoak izan eitezan eta ahalegin horretan geletako zorua brotxatu egiten eban lantzean-lantzean, zurezko zoruari ez eutsan argizari larregirik emoten, etxeko altzarien ertzak leundu eta biribildu egiten ebazan, nire ibilbiderako eragozpen izan eitekean guttia alderatu egiten eban, ibilkera normala eta orekatua ebenek eta ebenentzat taxututako etxe ingurua neuri eta neure ibilkera desorekatuari egokitzeke ahalegin biziak egiten ebazan emeki-emeki.

Noz edo noz, neure ibilkera bardindu eta kanpotik larregi ikusi ez eiten, betegarriak bejartzen eustazan ointxoek eta oinetakoek artean. Ahaleginak ahalegin baina, hartu neikezan samurrenak izan arren, herrera nintzan, etxean bertan eta geroago eta hurrago nebazan etxeko mugetatik kanpora. Jaiotzean hankatxoek eben abelera berbera erakusten eben orain be eta prestu eta adoretzu ekin eutsoen mundu honetan tente eta jausi barik ibiltzen ikasteari.

Hiru urte bete nituenerako finkatuta neukan ibilkera. Herren egiten neban, herrera nintzana danek ekien argi eta garbi, baina esku bate-

ko atzamarrez kontau eitekezan zanbuluka edo estropezu egiten ikusi nindueneko egunak. Harrituta geldituko zan bat baino gehiago herren-tasunetik haratagoko ibilkera irmoa ikusi eta gero. Amak eta biok bakarrik genkian zenbat kostau jatan, zenbat kostau jakun.

Hasiera baten nire pausots burrunbatsua eta zaratatsua, zalantzazkoa, erritmorik bakoa bazan be, berarizko erritmoa hartuz joian finkatu ahala. Apurka-apurka ibilkera irmoak igortzen eban doinua ez zan aidean oharkabean gelditu eta nire amaren belarri finereinoko bidea egin eban. Haren belarri-mintzetan oihartzun egin ondoren, behinola sabeletik heldu jakon doinu gozoa, gerora lo-kantu bihurtuko zana, gogoratuarazo eutsan.

Doinu berbera ezpainetara etorri eta kantamarmaritu egin eban. Hori entzutean gelditu egin nintzan eta begira-begira parau nintxakon, neuri be amaren kantamarmariak behinola eguna eta gaua bereizten, besotan zein sehaskan lo egiten erakutsi eustan lo-kantua gogoratuarazo eustan eta, ordutik aurrera bide-lagun izango jatan doinu gozoa berrezagutu neban eta.

Auzune baten bizi ginan, landaz eta zuhaitzez inguratutako atari biko harri eta egurrezko etxetzar baten. Azkenengo etxebizitzan, bosga-

rrenean hain zuzen be, bizi ginan. Gure etxebizitzak sabai baxuko atiko itxura eukan gela bazuetan, eta aldamenean, ganbara bat, sabai baxuko atikoak eta ganbarak modan ez egozan garaietan. Igogailurik ez geunkan gure gorantz eta beherantzakoetarako. Ataritik bosgarren etxebizitzarainoko zurezko eskilarak izan ziran jardun eta froga leku niretzat. Gora eta behera hasi nintzanean eskaileroi amaibako erexten baneutsen be, ekinaren ekinez ziztu bizian igon eta jaistera heldu nintzan, baita binaka eta hirunaka jauzi herrena egitera be.

Auzoko guztiek ezagutzen ninduen, euron etxeetan egona nintzan bertako seme-alabakaz olgetan zein amaren aginduak betetzen. Euren belarriak be ohituta egozan nire hanka herrenek ateraten eben hotsa entzuten. Eskailerak gora edo behera tatarrez ibiltzen entzuten baeben, “hortxe doa Mirentxu gurea, gure herrentxua” esango eukean, ahopeka edo boz goraz, baina beti be maitagarri eta laztangarri esango. Bestalde, hirugarren etxebizitzan bizi zan Josek, arotza bera, aulkitxo bat egin eta bere eskilaraburuan itxi eustan, gorabeheratan atsedenaldea behar izan ezkeren bertan jesarri nendin.

Eskolarako bidea egiteko ordua be heldu jantan bost urte pasatxo nituenean. Liburu-zorroa

hartu eta han abiatu nintzan poz-pezik herren-  
txuaren babesle izango ziran neba-arrebakaz  
batera. Hasierako egunetan, barrien barriz da-  
nak liluratzen ninduan ez eta jakingura ase gu-  
rean maistrari adi-adi nengoenez, ez neban  
beste ezertarako astirik be, eta ia-ia herrena  
nintzana be ahaztu egin jatan, etxera bueltan,  
eskolara bidean bezalaxe, poz-pezik eta ia he-  
gaz, lurrik ikutu barik ninoian eta.

Eskola egunak aurrera eta patiora aterateko  
ordua heltzen zan bakotxean, orduantxe ba-  
rrizatzen jatazan arazoak, nire hankak ez zira-  
lako jauzika, arineketan edo txingoka ibilteko  
besteenak bezain trebeak. Horrek guztiak, ba-  
rriro be, herrena nintzala gogoratuazoten  
eustan. Nire gogorapenari eskolakideena gehi-  
tu behar jakon, eurek be “Mirentxu, herren-  
txu” esaten eustien eta, baina gehienetan ez  
maitagarri ez laztangarri esaten.

Holakoetan normalean baino herrenka ge-  
hiago egiten neban, neketsuagoa jatan eskola-  
tik etxerako itzulbidea, tatarrez egiten neban  
eskaileran gorakoa eta luzaroago egoten nin-  
tzan Jose arotzak egindako aulkitxoan jesarri-  
ta. Lorratzak lorratz amak be laster antzemo-  
ten eutsan belarri mintzak urratzen eutsazan  
doinu aldaketari eta orduan bere harrera irriba-  
rretsuaq dana ahaztuarazoten eustan.



Amaren irribarreak beste lagundu eustan jaiotza geroztikako neure buru eta hanken abelerak, aurrera egin eta tente ibiliz, ibilkera trinkoa berreskuratzen, irmo jarraitzen. Oporrak hurrean egozan eta itxaropentsu begiratu neikion etorkizunari.

Uda hartan, gure herritik hurrean baina urian, uriburuan, bizi ziran senide batzuk agertu ziran gurean, handik pasatzen zirala-ta bisita egitera. Gurasoekaz zer moduzka, nigaz eta neba-arrebekaz mosuka ekin eutsoen. Neba-arrebak, ezagunak eurontzat, koskonduta aurkitu ebezan. Ezezaguna nintxaken arren laster baten ohartu ziran nire herren egiteaz, baina euren edukazino uritarrak ez eutsen ezer esateko baimenik emoten. Zelan edo halan baina konpondu ziran berbetaldia gai horretara bideratzeko, baita gurasoei herren egiteko hori konpontzeko ahaleginik edo kontsultarik egin ete eben galdetzeko be.

Gurasoei ez jaken inoz halakorik egiterik otu, gure inguruan herren egitea, gitxieneko zaintzeaz aparte, normaltzat hartzen zalako, ez ebalako etxeko eguneroko bizitzaz kirrinka egiten, neure hazkuntza orokorrean eragin nabarmenik ebanik emoten ez ebalako, hori guztiori uste dot behintzat.

Senideen ekinaren ekinak azkenerako, baina, duda izpi bat ereingo eban nire gurasoengan, uriburuan legokezan tratamentuek eta, behar izan ezkeru, euren etxea niretzako zabalik egoala esateak gehitu eben duda izpia.

Zalantzatan oraindino, han abiatu ginan ama eta biok udagoiengan uribururantz, medikuntan hasteko eta ni senide hareen etxean gelditzeko asmotan. Hiru pena neroiazan bihotzean: bata, etxetik urrintzearena; bestea, ikasturte hasieran eskolara ezin joatearena; eta hirugarrena, ez dakit pena edo zelan deitu, baina herren egitea nire nortasunaren berezitasun modura ikusten nebenez, tarra-tarrezko doinu gozo hori bizitzan bidelagun fidela izan nebenez, ez neban argi ikusten beragaz moztu behar hori, eta horrek bai, horrek pena emoten eustan barruan.

Lehenengo pena biok, etxetik eta eskolatik urrin egotearenak, amak eztitu eta ezabatuko ebazan berak ahal eban neurrian, etxeko bete-beharrek ixten eutsoen astirik gehiena nigaz urian pasatzen eban-eta, bisitok, eskolako barri emoteko eta maistrak ikasturterik galdu ez neian beren-beregi bialdutako kuadernoak eta liburuak ekartzeko aprobetxatuz. Hirugarren penarako ez eban sendabide berezirik, berak be pena berbera eroialako bihotzean, berak be

ez ebalako argi ikusten sortu ninduanetik gehiago oroimenean eroian doinu ederragaz eten behar hori, nahiago eukealako berak be doinu hori entzuten jarraitu.

Hainbat medikurengana eroan ninduen eta danak bat etorri ziran gu guztiok genkiena diagnostikatzerakoan, jaiotzatiko herrentasuna hain zuzen be. Hamaika galdera egin euskuezan, amari batez be, haurdunaldi aurretik eta bitartean zer jan eta zer edan eban, botikarik edo sendabelarrik hartu ete eban, ea familian herrenik egoan, eta halakoak. Baina guk ez geunkan ezer berezirik erantzuteko, ezin geuntsen gehiago lagundu. Beste haurdunaldien aldean zantzurik edo susmorik igarri ete eban galdetzerakoan, zalantza aurpegia jarrita amak, erantzun egiten eban erantzun sabeletik oroimenerainoko bidea egin eban doinuarena. Hementxe amaitzen ziran alkarrizketa guztiak, amak aurpegian eban zalantza medikuenetara pasatzen zanean.

Niretzako tratamenturik ez egoala emoten eban, inork ez euskun gauza garbirik esaten. Tratamenturik ezak uriko senideak arduratu egiten baebazan be, uste dot gu arindu egiten ginduzala, eta luzamendu gehiagorik barik etxerako bidea hartu genduan.

Etxean, auzunean eta eskolan bero-bero hartu ninduen, bairudian danak nire hanka herre-

nen doinuaren zain egozala eta doinu gozo horrek euren belarri-mintzetatik iragaztean lasaitu egiten ebazala. Guztion bizimodua normaltasunera itzuli zan, bakotxak bere zereginari ekin eutsan. Uriko senideek eurenari eutsi eutsoen, orain euren kontura, eta eurengandik alde egin eta handik hiru hilabetera, zera esan euskuen, mediku barria etorria zala uriburura, tratamendu barriren bat ekarrela eta, arren eta mesedez, umea, neu, harantza bialtzeko barriro, azken aukera izan eitekeala-ta.

Han joan nintzan ba barriro, oraingoan bakarrik eta erdi hasarre. Zer eta tratamendu barri hori operazino bat zan, operazino arina agindu eustienez. Bertan lotailu eta musku luak luzatuko eustiezan eta hazur zati barriak jarriko. Noren hazurrak izango ziran, hori ez eustien esan. Operazino berbera jasandako umeen argazkiak erakutsi eustiezan, zelan egozan umeak operazino aurretik, zelan gelditu ziran operazino ostean. Argazkiok politak ziran eta umeok bertatik irribarre egiten eustienez, konfiantza osoz sartu nintzan operazino gelara.

Operazinoa arrakastatsua izan da, holan esan eben medikuek. Oraindino lotan nengoan hori esan ebenean, horregaitik ez neutsen en-

tzun. Trankil nengoan, operazino aurretik hanka herrenek ateraten eben doinu gozoa baino ez nebalako entzuten lo-kantu modura. Handik ordu batzuetara logelan bertaratu nintzanerako minsor bat sentitzen neban eskumako hankan, horixe baino ez. Eskuak hanketara eroan eta biak neurri berekoak zirala frogatu neban.

Hurrengo goizaldean zerbait susmau neban barru-barruan, desbardin nintzaneko sentimentu bat edo. Jakin banekian, frogatu egin nebalako, hankak bardinak zirana luzeran, beraz ez nintzala aurrerantzean herrena izango. Horrek zuzenetsi eikean sentimentua, holan ninotsan neure buruari, baina neure burua ez zan konbentzituta gelditu, sentimentu berberarekin jarraitzen neban eta.

Goiza aurrera, hori sentimentuori apurka-apurka gorpuztuz joan zan, arineketan egiteko gogo bizia bihurtuz. Niretzako ulergarria bazan be, batetik, etxeratzeko neukan irrika bizia adierazoten ebalako eta, bestetik, herren egitea ahaztu gurean hanka normalduet arineketan zelan egiten eben frogatu gura izango nebalako, baegoan oraindino guztiz argitu ezin neikean susmoren bat. Ingurukoek be zerbait susmagarri nabaritu behar izango eben, euren aurpegietan larridura pittin bat ikusi neikean-eta begiratzen eustienean.

Eguerdirako susmoa egia, errealitate bihurtu zan, arineketan egiteko gogoa areagotu eta klinikatik, bat be herrenka egin barik, trostan aterra eta iges egin nebanean, urrineko ahots batek dei egin izan baleust legez. Lanean zihardue- nek danek ikusi ninduen orduan alde egiten baina geroago danek esango eben zaldigorria ikusi ebela klinikatik ziztu bizian trostan eta dotore ateraten.

Ordutik hona gure auzunea inguratzen daben landa eta arboladietan zehar nabil hara eta hona, bertako belardia dot eguneroko janari. Noizean behin amak gutziaren bat dakart eta orduan, nik jan eta bere esku gozoak kimak laztantzen deustazan bitartean, behinolako doinu ederra kantamarmaritzen deust belarri- ra.

# **BIHOTZ BEIRATUEN MELODIA**





Ahaztu gurak eroian bidetik luzaroan ibili ondoren, gelditu, eta Madalenek atzera begiratu eban. Gauza bi egiaztatu gura zituan bere begirada atzera bota ebaneko une hartantxe: bata, atzean itxitakoa benetan atzean gelditzen zala, ez joakola atzetik eta, bestea, atzean itxitakoaren eta bere arteko tartea aurreko geldituenekoa baino handiagoa zala, azken honegaz beste gauza bi be frogatu gurean, batetik, ahaztu gura zituan hainbat gauza han, urrinean, gelditzen zirala betirako eta, bestetik, berak egindako bide barria aurrerantzako bidea zala, urrinerako bidea.

Eguzkiak gogor jo eta begietan min hartu arren, tinko eutsi eutsan begiradari, aurrean agertuko jakonak merezidu egingo ebalakoan, ikuskizuna begi minduentzako balsamoa izango zalako esperantzan. Zutunik egoala, ikusitakoak begi-niniak zabaldu eta bihotzeko tau-padak astiroagotu egin eutsazan. Lehen frogatua, beraz, gairatua eta ondo gairatua eban. Gustauko litxakio bai, orain, bidean jarri orduko mesfidakorren aurpegiak ikustea, hareei ber-

berai ahotik jaurtitako mespretxuzko berbak iruntsiarazotea.

Lasai-lasai, udako arratsalde sargoritsu haretan, arboladipean jarri zan atzerritik etorren Madalen, indar barriak hartzeko asmotan eta aurreko sagarrondoak, ustebakoak, begi bistan ebazala ia-ia loak hartu eban. Bidean zan, aurretiko mundua bertan behera itxita, ahaztura-ren mundura eroango eban bidean jarria.

Eta orduantxe ikusi ebazan ikusi, arboletatik dindilizka, bihotz urkatuak, eguzkitan beirazko zati distiratsuak, denporaren iraganak han barruetan kondentsaturiko sekretuen gordeleku balira moduan. Ume bat ebilen altxorrok eskuratu gurean, bere eskuak ez ziran fruitu desiragarrietara heltzen, adarretatik tiraka be ez ziran lurreratzen eta, bere buruarekin hasarre, alde egin eban handik parajetik umeak.

Ikuskizunak erdi itsuturik itxi eban, gauza ederragorik ikusterik ez ebala-ta; zertarako begiak, horixe zan bihotz urkatuen azken mezu desafio leunez betea. Ez ebala edozeinek bere erretinan halako azken irudirik finkatzeko zoririk.

Beirakiak kolore eta tamainu ezbardinetakoak ziran. Eguzkitan ala kerizpetan egoteak mila eta milaka kolore gehiagotan ebazan hedatzen eta brisara epelak ttintin hots gozatsua ekarren. Kolore eta tamainu ezbardinek zeri-

kusirik ete ebelako pentsamentua etorkon burura, sailkapen hutsa egin ete eitekeaneko burutazinoa.

Adi-adi gelditu zan, beiraki barrunbeetatik etorri eitekezan hotsen zain, begiak zabal-zabalik beirakiz bestaldera sartu nahian. Froga gainditu osteko lasaitasuna eta ustekabearen aurreko zorabioa sentitzen ebazan, biak batera, bata besteagaz lehian, bere baitan. Hasiera baten ezerezak, gerotxoago nahaspila zala emoten ebanak, halan-holango erritmoa hartuko eban azkenerako, erritmo ematsua batzuetan, grinatsua besteetan, bihotz beiratuek alkarren kontra zelan jo halako hotsagaz.

Bata bestea ferekatuz ateraten eben hotsaz aparte, baegoan egon azpi-azpian horri hotsorri egokon doinu erakargarri bat eta doinu hori bakantzeari ekin eutsan orduan Madalenek. Pentagrama batera eroan ezkerreko, sekulako melodia izan eitekeana bere burumuina asetzen joian bitartean, melodiaren izenburua pentsatzeari be ekin eutsan. Bapatean aspalditik lozorroan egondako izenburua jalgi zan: bihotz beiratuen melodia. Izan be, izen hori jarriko eutsan arboletatik dindilizka egozan beirakiek igortzen eben doinu hotsari.

Doinuari jarraitu ezkerreko, barrengo belarri-gunetik zehar joan eta harik eta garaunetako

entzumen zentruraino heldu arte, haren deskodifikazioak faktore iraunkor bat erakusan, behin eta berrero barrizatzen zan faktorea. Izan be, bi zenbakia zan sarrien agertutako faktorea, bestelakoak be biaren biderkiak baino ez zirala gehienetan. Beiraki bi, bihotz beiratu bi, nolana hikoak, ederragoak edo itsusia goak, gardenak zein ez gardenak, distiratsuak nahiz higatuak, etsituak zein itxaropentsuak, baina bi beti, bata bestearen ondoko hotsa, bata bestearengandik alde egin eta geroko oihartzuna barreiatzen ebela, entzungorrenek be, bihozkorrenek be entzun egien.

Hasiera baten beiraki hotsa, horixe bakarrik, emoten ebanak, baekarzan beragaz batera beste hots batzuk be, Madalenen belarri finak egoera barrira egokitutakoan esaten eutsan legez. Eta bairudian hotsok bihotz beiratu barruetan egozan edukinei eriezala, ezinbesteko pentagrama ezagun batetik itzuri gura daben noten antzera. Horretara, adi-adi jarri ezkerre, lehenengo doinu bereizgarria kanpandorre batetik etorkola emon eutsan.

Kanpandorreko erlojuak zazpi eta erdiak dituanean jo, Amandak, asper-asper eginda eta sutan jartzear, eskumuturreko erlojuari begiratu deutso hasperenez, une horretantxe egiazta-

tzeko ordurarteko inpresinoa, ordubete daroala Jonen zain alegia. Begiratze horrek ironiaz betetako irribarrea aurpegiratu deutso, maitasun seinaleztat erregalaturiko erlojua begi bistara dakartsolako.

–Zorionak, nigan pentsau eta nigaz igarotako orduak gogoratu daizuzan emoten deusut erloju hau oparitzat –esan eutsan urte batzuk lehenago Jonek.

–Eskerrik asko, zure ondoan emondako denporea, dohatsua, neurtezina izango bajat be –erantzun eutsan Amandak.

Eskerrik asko, zure esperoan galdutako orduak markatuko deustazan erlojua erregalitzen deustazulakoren bat erantzun behar eutsala erantzun orduan, pentsetan dau gaur Amandak, baina gaur egun beranduegi da, ordu luzeak igaroak dira ordutik hona, erloju-orratzek ez dabe alperrik aurrera egin eta ordurik jo.

–Egia esan ez da Jonen zain nagoan lehenengo eguna eta alde horretatik, beraz, ohituta egon beharko neuke –dinotso bere buruari. Hortaz, zergaitik dago gaur Amanda erloju madarikatuari hasperenez begira? Zerk egiten dau baina egun hau desbardin? Edalontzia gainezkatzen dauan tantak. Bata bestearen ondoan egotea, Amanda Jonen ondoan egotea, maitasun izatetik ohitura izatera bihurtu dauan

egoerak. Kanpoko eta barruko erlojuen erritmoa galdu daben erloju-orratzak. Horrek guzti horrek egin dau apurka-apurka egun hau ez bardin. Eta lehenagoko itxaronaldietan itxurazko azalpenek eta maitearen irribarreak, honexek batez be, konpontzen ebena ez dau gaurko egunean mila eta milaka aitxakia gehiagok konponduko.

Maitasunarena momentuan bertango konkista bat dala uste dauanak, bere irabazi hain prezia-tua apal baten jarri eta erakusteko tentaldia izan daike. Tentaldian jausi ezkerro, etxeko apalategia momentuko garaikurrez bete daike. Bestea menderatzeko lehiak bere senetik ateraten badau, irabazion izenak nahastu daikez. Konturatzeke, behar ez dan izena, behar ez dan lekuren baten aitatu daike. Bidenabar maitasunarena egunean egunean irabazten dan altxorra dala uste dauana galdu daike, apaletik iges egin leio.

Burutapenok ez jatorkoz ustekabean Aman-dari, aspaldian barrengo bidezkututik jabilkonna azaleratu baino ez jako egin eta. Badau aspalditik, Jonegaz alkarbizitzan, irabazi segurua dalako sentipena, zernahi eginda be Jonek beti bere apalean distiratsu uste dauan garai-kurra. Sentipen horri beste hau be gehitzen jako, harako lehia hark jotakoa beste garaikur baten atzetik ibili dabilela. Holan ba, aspal-

dion bere bihotzak ateraten dauan hotsa nahasmenaren eta matxinadaren hotsa da. Bestearen bihotza ferekatzen dauanean oraindino be bizkortzen eta minberatzen dan hotsa.

Jonek be erlojuari begiratu deutso, bulegoko mahai gaineko erlojuari hain zuzen be, kanpandorrekoak zazpi eta erdiak jo dituan. Begiratu beragaz ikusi dau Amandaren argazkia alboan eta orduantxe altzau egin da, bere gorputza zerbaitek ziztatu izan baleu legez, ziztada horrek agindutako zerbaite gogoratu arazo izan baleutso legez. Lehen momentuko eta oharkabeko mobimentu hau eginda baina, jesarri egin da barriro.

Izan be gaur goizean sei eta erdietarako ordua jarri deutso Amandak, alkar ikusteko, eta honezkeroko ordubete igaro da zita ordutik. Horrexek altzau arazo dau lehenengo momentuan. Azpikontzientziak ostera barriro jesarri arazo dau. Azpikontzientziak berak agindu deutso gaur luzaroan jardutea lanean. Lanaren aitxakiari Jonek berak be ez deritxo ondo baina Amanda ikusteko gogo handirik ez dauala egia dan bezala, egia da baita be bere baitarako behintzat preminazko azalpen bat dauala behar, eta ez jako azpikontzientziarena baino hoberik bururatzen, bibliografia luze bati errazoi emonez gainera.

Eroso jesarri eta zigarroa ixetuko dau. Aintzina ez dala ez eukean pentsau be egingo egunen baten lanorduz kanpo lan-lekuan geldituko zanik eta, oraindino gitxiago, Amanda ez ikusteagaitik izango zanik. Maitearengana joateko falta ziran minutuak sosegurik barik kontetan ebazan gizona zerk dauka gaur jarlekura josita? Persona segurutzat jotzen danarengana joateko ilusinerik eza. Besteak izan daikezan ezkutukoak ezagutzeko ahalegina indargabetzen dauan errutinak. Aspaldion Amandarengandik nabaritzen dauan ezelako alderaketak.

Guzti horrez gainera, badau izan aspalditik azpijanean jabilkon harra, hau da, bihotzeko apalategia irabazi barriez hornitzeko lehia. Askoren faltan ez eta bere inguruan oraintsu orain agertu dan emakumeak astindu ditu us-tezko maitasunaren txingarrak eta sortu txinpartak. Erretzen diharduan zigarrotik gorantza doazen kebihurriek gogoratu arazo baino ez deustie egiten beste suaren lekukoa, harexen usaina batez be. Keri begira jatorko arratsalde honetako giroaren eragileetariko baten izena, Madalen. Haren bihotza ferekatzen dauanean azkartzearen doinua ateraten dau bereak. Amandarenak ferekatzen dauanean oster, gogaitasunarena.



Madalen txunditu egin zan, bihotz urkatuez betetako parajea, paraje hain harrigarrian, ezagunak jakozan doinu-hotsak entzuten ebalako. Baita atzean itxitako berbaroa eta honek gomutarazoten eutsazan irudiak be hantxe, begien aurrean, ebalako, bere atzetik ekarren lorratzaren antzera. Bere izateari eraxikita balegoz lez.

Teoria orokorrak, hots, distiratsu egozan beirakiek bi binaka ekiten eutsiela esaten baeban be, banako kasuak azaltzea gelditzen jakon, edozein arauk dituan salbuespenak hain zuzen be. Izan be bi binaka ziharduela emoten baeban be, bi izanda be, ez ziran beti beiraki bi berberak alkar jotzen ebenak, bikoteen osagaiak aldatu egin eitekezan haruntz honunzko mobimentuotan, honunzko bidean distiratsu agertzen zana, harunzkoan distiragabe agertu eitekean. Are gehiago, bi binakakoa hiru hiru-nakakoa bilakatu eitekean, hirukotegaiak bila-kaera horren jakitun ez baziran be. Jazoera ezagunegia Madalenentzat.

Bakar antzean ebilela, behinola hasi zan bere inguruan halako dardara eta islada batzuk sentitzen, gitxi gorabeherako erritmoa eroienak, bateren batek eragabezko aldizkotasunean bialduko balitu legez. Bere barrenean ego-nezina sortzen ebelarik, handik lasterrera kon-

turatu zan Jon hurreratzen eta aldentzen jakonean gertatzen jakola.

Ia igarri barik, berez berez, konpas berean ekin eutsien, bata bestearen ondoan lehenengo, imanak erakarritako burdinezko bihotzen antzera gerotxoago, alkar ferekatzerakoan sendotasunean baina atsegin hotsa ateraten ebela-rik. Denpora bera be gelditu egiten zala emoten eban, aire geldi hartan euron bion melodia soilik entzuten zala.

Luzarora ez baina, ibilera akonpasatua zana zurrunbilo zalapartatsu bilakatu zan, bidaldi erdibanatua zana jirabira inguratzaile, eta hasierako goxotasuna lehia bizi. Aldaketa hori ez jakon bape gogoko Madaleni, batetik, grinabizien sugarrak itzali eta geroko txingarrautsen usaina gogoko ez jakolako, eta, bestetik, oraintsu orain Jonen ekinaldiek, eskuratu eta gero bazterrean ixten dan garaikurra izango zala susmarazoten eutsielako. Holan apurka-apurka mobimentuen urrinaldi eskasak aprobetxatuz, lokarria apurtu eta alde egitea ebatzi eban.

Madalenek guzti hori gogoratzen dau udako arratsalde honetan, bihotz beiratuen melodia entzuten dauan paraje honetan. Eguzkiaren distira itzalia dager beirakiotan. Honeexen ttinttin hotsa izango da bere lo-kantua.

# **ARGAZKIKO ERDI EZEZAGUNA**



Leihoko gortinetatik zehar sartzen diran eguzki izpiek izartzen dabe egongelako besaulkian datzan Sara. Bazkalondoan-edo etxun da lo-kukua egiteko. Ez daki baina zenbat denpora iraun dauan lotan. Eguzki izpien kopuruak eta berotasunak laster esango leuskioe udako arratsalde sargoritsu samarrean dagozala, beraz, gixienez ordubete lotan emon dauala, baina Sararen gorputzeko termostatoak aspalditik dau galduta hotza, epeltasuna eta berotasuna bereiztu eta erregulatzeko gaitasuna. Urtaroak eurak be hormako egutegiak eta haren ingurukoek dinonetik bakarrik bereiztu daikez.

Izan be berak gehienetan hotza sentitzen dau gorputzetik zehar hedatzen, burutik behatzetaraino ur-korrante izoztua baijabilko. Alperrekoa jakon berokiz, galtzerdiz zein mantaz berotu beharra, barruko epeltasuna, bihotzeko berokuntza zentraletik urten eta zain hodieta tik gorputzeko ertzeetaraino barreiatzen dan epeltasuna falta jakon eta. Berotze sistema hauskorrean oraindino aurkitzeko eban matxuraren bati egotzi leikioen errua.

Berotze sistema hori gorputzetik aldenduta ikusten eban, bere borondatearen kontroletik kanpora. Eta antzera ikusten ebazan gorputzeko beste atalak be, bakotxa bere aldetik, burua hemendik, hankak eta besoak handik, sabela bestetik, bakotxak gura ebana egiten, ezelango bateratzerik barik, dan-danak, hori bai, oreka hauskorrean, kaosaren ertzean, ordurarte behintzat.

Horrezaz pentsetan dabil eguzki izpiek esnatuarazo eta berehala. Ikusi ikusten ditu urre koloreko izpiok eta sentidu sentidu gurako leuke urre kolorekoen berotasuna, barrutik daroa eta burruka ixila, nahi eta ezinaren artekoa hain zuzen be. Ikusten eta ikusi gura dauanaren arteko disoziazinoa, sentitzen dauanaren eta sentidu ezin dauanaren artekoa, horrexek menperatzen dau Sara.

Lo egin badau be, hori uste dau berak, nekatuta eta indarge dago besaulkitik bertatik al-tzetako be, etxunda jarraituko leuke orduetan. Parean daukan apalategiari erreparatzen deustsie orduan haren begiek. Liburuak bata bestearen aldamenean ondo be ondo ordenauta, bata be ez okertuta, eta gitxiago horizontalean bata bestearen gainean jarrita. Dagoan lekutik ezin ikusi daikez liburuon izenburuak eta idazleen izenak, baina jakin badaki egilearen abi-

zenaren arabera dagozana sailkatuta, alde batera euskeraz idatzitakoak, bestera osterantzeko hizkuntzetakoak.

Gorengo apalean argazki-albumak dagoz, euren bizkar baltz, gorri eta berde distiratsuak nabarmen erakusten dabezala. Albumak be kurioso kurioso jarrita, koloreen arabera euren barruetan urterik urteko, sasoiz sasoiko familiako argazkiak gordetzen dabezala, edozein begiri erakutsi ezin leikioen sekretua balira moduan.

Albumek Sarari deika dihardue. Bere aurpegiak darakusan goibeltasunari kontrapuntua jartzen deutesie albumen baltz-gorri-berdeek. Ahuleziak besaulkian untzatuta dauka. Albumen distirari inoz baino erakargarriago deritxo. Zer egin orduan? Aldeko eta kontrako indarrak, egon hadi etxunda dinotse batzuk, jagi hadi dinotse besteak, tirabiran jabilkoz. Holako baten, di-da baten, zutundu egingo da amaren esanetara hazur eta azal hutsa besterik ez dan gure Sara.

Bateko ahulezia eta besteko bizkorregi zutunik jartzea dirala-ta, zorabiatzeko zorian egon da, eta barriro jesarri behar izan dau. Zurbil eta hotz dago, erregai tantaka batzuen premian dagoan nire Vespa motorra legez, neba nagusiak esango eukeanez.

Minutu batzuen osteko bigarren ahaleginean, orduan bai, altzau eta atzapar hazurtsu eta garden batek album gorri bat hartuko dau, zoriz. Barrero jesarrita, hori albumori eskuetan, kanpotik laztantzen dau lehenengo, kurioso kurioso, lotan dagoan umetxoarentzako edozein esku laztantzaile izan daiteke eta esnataztaile, zer esanik be ez Sararen esku hazurtsu urreztailearen kasuan, lo-kanta abeslariak esango eukeanez.

Berez-berez albuma zabaldu, antza zoriz haxe be, eta eskumako aldean dagoan argazkera, haraxe bertaratzen jakoz begiak. Neskati-la bi, hamar-hamabi urteren bueltakoak, agertu jakoz irribarretsu lehen planoan, eta han, urrintxoago, itsasoa, ikuspegi guztia, ikusten ez dan eta urteen buruan indargetu ez dauan eguzki indartsu batek argitzen dauala. Neska-tiletako bat ezagutzen dau ezagutu, bestea oster, begira-begira egon arren, ezezaguna egiten jako.

Irudiez eta koloreez gainera, argazkiari doinu bat dariola begitantzen jako, urrinetik etorri eta bere belarrietaraino oihartzun modura helzen dan doinua. Konturatu barik argazkiran-tza makurtzen dau burua baina doinua ez da ozenagotzen, oihartzun dirau. Aurreko jarrerara etorri eta begiak itxi egiten ditu.



–Ei! Zuok biok!, parau zaiteze hor aurretxoan, itsasoa atzean dozuela argazki politta atera behar deusuet eta. –Hauxe inoan urte batzuk lehenagoko uda batez argazkia atera ebanak.

–Eta zu, Marta, hori pottolaori, mobidu zaitetz pixka bat erdialderantza, ez zara bestela argazkian sartuko eta –gehitu eban argazkilariak.

Horreexek berbok dira, berbon oihartzuna hobeto esanda, orain Sarari entzumen-oroimenera jatorkozanak. Ahotsak aurretik ekiena baieztatu besterik ez deutso egin, hau da, argazkiko neskatiletako bat Marta bere ahizta dala. Nor ete da baina bere ondoan lepotik ebatuta datxekiona? Oroimenean atzera egin, galdetu eta ixiltasuna baino ez dau aurkitzen. Barruko ahotsak be ixilik dirau.

Oroimenean, hondo-hondoan ez bada be, zer edo zer gordeta dagoana dakienak eta gordeta dagoan hori ezin gogoraturik dabilenak sentitzen dituan harridura eta tristura batera jatorkoz Sarari, bere ahulezia astunduz. Barriri etxuten da, albuma sabel gainean zabalik eta.

Pauso-hotsa lehenengo eta giltz-hotsa gero dantzu etxera sartzeko ate ondoan. Urteetako alkarbizitzak eta alkar ezagutzeak ezagun egingen deusie hori hotsori, badaki Marta izango dana, igerilekutik bueltan seguru. Berehala ja-

torko burura mikrouhin-labean berotzeko itxi deutsien bazkari ikutu bakoaren irudia. Argazkiaren kontu horregaz ahaztu eta ez dau astirik be izan janaria ostontzeko. Orain berandu da eta, gainera, ez dau indarrik nahikorik itxurak egiten hasteko. Sekulakoak entzun beharko ditu ahiztaren ahotik! –Zer, gaur be ez dozu ezer jan, ezta? –hasiko jakon, eta hortik aurre-rakoak.

Marta ostera pozik dator eta ez dau, antza, hasarretzeko ez agirika egiteko gogorik. Egongelara eta besaulkirantza jo eta ahiztaren ondoan egokituko da. –Zer, aspaldiko argazkiak ikusten ala? –dinotso irribarretsu, esku artean daukan albuma bereganatuz. Eskuma aldean dagoan argazkiari begira, zera dinotso Sarari: –Begira, bai, gogoratzen dot hau argazki hau, uda batez aitak guri bioi Ogoñora bidean atera euskuna da. Orduan bai pottola ni, zu oster, Sara, zein eder eta liraina zinan.

Eta Martari negar anpulutan jarri jakoz begiak, behinola nor zan ezin gogoratu eta zein eder eta liraina zan bere buruari ahaztuarazo deutsan ahizta makalduari begira.

# **CANTERBURYRA BIDEAN**



Isseseren begiak zuzi bizi bi ziran, barren-barrenetik txikitik ikusitako oihana garretan islatuko balebe lez. Kearen dardara ikusteaz batera, haren usaina hartu ezkerro, orroaka eta marruka noraezean hasiko ziran oihaneko animaliak eta itsumustuan eurotariko batzuk amilduko. Lehoi jauna, jirafa tantaia, ostruka arina, han lebilkeaz hondamenditik librau gurean, zera jakin barik, eurak zirala izan sua eroienak, eurekaz batera joiala sua hedatzen. Suzko hesi barruan egozkan ezin ziran egoera horrezaz konturatu, baina, kanpotik, kanpokoen begiek dan-dana ikusten eben argi baino argiago.

Izan be amodioaren garrak bereganatu eban Isseseren bihotza Canterburyra bidean. Hango etxetzarretako hormetatik zehar aihentzen zan huntzorria lez hasieran, holantxe egin eutsazan arraildurak bihotzean eta handik lasterrera barru inguruko harresiak galdatu eta behera etorri jakozan. Euron lekuan suzko bola bat jakon gelditu.

Handik aurrera Isseseren begi baltzek Anni-  
ren zuria baino ez eben ikusten, haren distiral-

diek bideratzen ebezan bere begi lausotuen pausuak, haren berba musikariek bere mobimentuen erritmoa moldatzen. Bere herriak musikari zor eutsala biziraupena esaten ekian eta, holan, bera be gizaldiz gizaldiko halabeharraren betetzaile zatekean.

Berebiziko ahaleginak egin ebazan Anni bereganatzeko. Ahaztuta ebazan ordurako Canterburyra joanarazo eutsien asmoak, konkista barri horren menpean gelditzen zalarik. Ahaleginak ahalegin, ez zan bape erraza Anniren bihotzerainoko bidea aurkitzen.

Hainbat eta hainbat azkon jaurtitzen eutsazan, baina erantzunik ez eta errebotean etorkozan barriro be, bere herriko azkon-jaurtitzailerik trebeenari barre eragingo leuskioen azkonak balira legez. Ez zan ez oraindino azkon pozoinduak botatzen ausartzen, etsipenerako azken baliabide lirateken eta eurok.

Zubiak eraikitzeari ekin eutsan hurrengo. Bihotzetik dindilizka eta begirada samurrez kordatutako zubiak ziran orduan. Holan ba, hasierako zubi-guneak samurtasunez beteak ziran eta politto uztartzen ziran bata besteagaz, baina, zubi-buruak aurrera egin ahala, eraikitze hari amaiezina eritxan, beste muturrean ez egoan inor zain eta une hareetantxe guneak gogor samarrak bihurtzen ziran, hurrengoko

uneetan negar-anpuluz bustitakoak bilakatze-ko, bustitakoaren gainean laban egin eta zubitik behera jausteko arriskua eurekaz ekarriela. Lanok bertan behera ixteko beharrea egoan, zubi amaitubakoa altzau eta tristuraren ontziari paso emon beharrea.

Egoera aldakor honek akidurara bidean eroian Issese eta beronen itxura aldatu egin eban. Distira eta bizitasunaren ordeztu, ilunbea eta lauso-arrastoak ikusi eitekezan haren begietan, azaleko baltza indarra galduz joian, zurbiltasunak haren lekua harrapatuz. Apurka-apurka hasieran eta, azkenerako, astrapaladan egindako aldasbehera honen amaierarako ezagutezina zan Issese.

Anniren presentzia, bera ikustea mingarria eta jasanezina egin jakon eta hori guztiori alderatzeko asmotan, etxean gelditzea otu jakon. Jakin baekian –azpikontzientzian behinik behin, holan esango eukean kanpotik begira egoanak– alperrik zana ahalegin hori, Anni ikusi gura ez baeban alperrik zala etxean gelditzea, etxean bertan be Anni bera agertuko jakon eta, alper-alperrik jakola norbait ez ikustearren kanpora ez joate hori, norbait hori, Anni, barrunbean eroian eta.

Ohean etxunda, gelako hormei begira eta hango arrakalek egiten ebezan bideak jarrai-

tzeari ekin eutsan egunero. Grafiko baten ikusi ezkerro, gogoaren egoera normaltzat jotako lerro zuzenaren azpitik baegoan be, egoera horrek baebazan izan gorabeherak eta, beraz, grafikoa pixka bat aldakorra zan. Gogoaren lerroak eta arrakalenak bardinak ete ziran ala ez, parekideak ala ez, baterakorrak ala urrutiratzailleak ete ziran, holakoxe ikerkuntzatan eban bere burua lehiatzen, denpora geldia emoten ebanak aurrera egiten eban bitartean, ia-ia igarri be egin barik.

Egun batzuen buruan ostera, ikerkuntzok aspergarri bihurtu jakozan, noragabeziak besterik ez, eta lerro tartean katramilatzear egoala, gogoaren azken argitaldia balitz moduan, aldaketa bat susmau eban eta arrakalek beste ikuspegi bat erakutsi eutsien, berak be beste itxura batez ikusten ebazan. Hormetako lerrook orduan, batez be iparraldera begira egozanez, irudi politagoak eta baikorragoak osatzen ebezan eta, artean Isseseren gogoak bihurritzen ebazan irudiak baziran be, euron arteko hartu-emonak ez zan horren zuzenekoak eta ezin eitekean grafiko hotzen bidez adierazo.

Eta halako baten Anniren aurpegia marraztu eben hormako arraildurek, haren betartea jalgi zan irudi hareen menpetik. Eta Issese, zirkinik be egin barik, hareexei begira gelditu zan tin-



ko. Barren-barrenean luzaragoan eutsiezineko zubi-bularra lehertu egin jakon eta itolarria sentidu eban gorputzetik zehar.

Agerkunde barri horren eraginetik iges egin behar eban, hondoratzerik nahi ez baeban behintzat, eta larregi pentsau izan baleu egin izango ez leukena eginez, etxetik kanpora ikusi eban bere burua. Ilunabarreko orduak ziran hareek eta ohi lez Canterburyko kaleak ia hutsik egozan, ez zan apenas jenderik ikusten. Tea hartzeko saloiak aspalditik egozan itxita eta euron kristaletatik zehar, hurrengo egunerako garbi eta prest egozan te-ontziak eta kizarak ikusi eitekezan. Saloi barruetan ikusi eitekezan baita arratsaldeko solasaldietatik iges egindako berbek osatzen ebezan laino zintzilikariak be.

Stour errekarantza zuzendu ebazan pausuak orduan eta, han, urazalean islatzen zan bustinezko argiaz gozatu eban, lorez, lilipaz egindako ohean etxunda lasaitu zan, hezetasun eta itxitasun-hatsa erantzi eban eta hotzaroaren usaina jantzi. Begiradak ohiko distira berreskuratu eban, azalak berezko baltza eta gogoak, ordutik aurrera letorkenari aurrez aurre begiratu eikiola inotsan gogoak.

Gaumina zan eta gautxorien itzalak besterik ez ziran urian nabaritzen. Katedraleko argite-

ria urdinskak itxuraldatu egiten ebazan Anni-  
ren oroitzapenak. Zuri-baltzean gorderikoak  
zehaztu ezin eitekezan koloretan jakozan  
agertzen eta agerkeria horreek sentipen naha-  
siak sortzen eutsiezan. Izan be aspalditik estal-  
du beharrean baina agertzeaz egozan oroitza-  
penok nahas-mahasean ebilkozan barrutik eta  
urdinaren ikutua aprobeztatuz, ikutu majikoa  
ia, kanporatzen hasiak ziran.

Iparraldetik etorria zan Canterburyra, atzera  
begiratu barik, atzean itxitakoa begirada eta  
gogoaren atzemotetik kanpora baztertu gure-  
an. Ez eban zati baterako aztarnarik itxi nahi  
inon, ezta beste inork beragan arrastorik era-  
gin eian. Azken honeetako hainbat beragana-  
tua zan, inora be ez erorien bideak hartutakoa  
hain zuzen be, eta ez eban galbiderako senti-  
mentuen lilurakeriatan jausi gura. Azken baten  
eta leku barrira heldua zalarik, ikustezina iza-  
tea eban asmotzat.

Bertara heldu eta geroko lehen egunetan uri-  
ko egunkarietako iragarpen sailak begiratzeari  
ekin eutsan, lan eta, batez be, bizileku bila. Uri  
handi samarra izanik erraza izango litxakiola  
uste eban baina, bateko, lan eskaintza urria eta,  
besteko, etxebizitza garestia beste batzuekatz  
banandu beharra zirala eta, hainbat egun emon  
ebazan harik eta gustukoa aurkitu arte. Kale

trankilean egon eta leihoak lorez beteta eukan etxe erdiatxikia hartu eban alokairuan. Lanera-ko, zenbaki-eragiketarekin zerikusia eban lana lortu eban. Zenbakiok erabiltzeak, eurokaz batuketak, kenketak eta abarrekoak egiteak ez eukean beragandik larregi eskatuko. Gainera etxean egin eitekean lana be bazan, beraz bentajarik baino ez berarentzat.

Lanean buru-belarri murgilduta ebilen mundu haretan beste inor ez balego lez, lanaren errekinak, horrexek, eutsiko baleutse legez gorputzeko beharrizan ezagun zein oharkabe-ei. Bairudian, baita, zenbaki konbinaketek batzuetan baeukiela euki zerbait berezirik eta erakargarririk euren sakonean eta orduan euron sekretua deserraintzeari ekiten eutsan An-nik. Konbinaketa barriak egiten be hasi zan bere kontura, matematika barri baten sortzai-lea balitz moduan, bi eta bi lau ez izateraino heldu arte, lanaren ordaina emoten eutsienak lan automatikoaren eta lan sortzailearen artean dagoan tarte esanguratsuaz ohartarazo eutsien arte.

Zenbakien zorabioaren menpean sartzear egoala, behinola lagun min batek esan eutsana gogoratu eban, zera hain zuzen be, pantailaz bestalde agertzen ziran zenbaki eta irudiei maitasuna erielatzen eta erabiliaren erabiliaz eure-

kaz maitemindu eitekela. Burugabekeria eritxan ideia horri baina horra hor non egoan bera be lerro mugagatxa igarotzeko zorian. Hobe litxakio beraz gauzak neurritz hartzea eta alpe-  
rreko buruhaustetan ez jardutea. Menpekota-  
sun haretatik askatzeko berreziketari ekin be-  
harko eutsan.

Egunean zehar lanean neurritz jardun ondo-  
ren, arrats beheratan ibilaldi luzeak egiten eba-  
zan Canterburytik, alde batetik besterainoko-  
ak, ordu hareetako argitasunaz gozaten ebalari-  
rik. Ibilaldioak gehienbat gustukoak jakozan  
nahiz eta inguruak, erreka inguruak batez be,  
lilipaz, zorigaiztoko lilipaz beterik egozan.  
Izan be ikuspegi hark jaioterria gogorazten  
eutsan eta artean be min emoten eutsan ikus-  
pegia zan.

Lilipa horiminekin estalduko ebezan sasoi ha-  
retantxe bertantxe York uriko berdeguneak,  
hango ibiltariei alfonbra bigun baten gainetik  
ebiltzala irudituko jakelarik, hango maitemin-  
duek, oinazpiak lurra ikutu barik, hegaz doan  
alfonbra bigunaren gaineko ibiltariak irudiela-  
rik. Loreei erien lore-eztiak gozatuko ebezan  
oin berotu eta handituak, euron usaina azaleko  
xularmenetatik barruratuko.

Harresietako pasealekuetan Sean maiteare-  
kin gora eta behera ebilela, begi aurrean ager-

tzen jakona paradisuko ikuspegi berbera zala esango eukean, maitasunaren begiek holan inotsen eta, gorputzeko zentzumenetatik zehar barneratzen zan guztiak lekuratu ezineko gunetik igaro ondoren, zirrara eraldatuak emoten eutsazan eta. Seanen ikutua, haren ondoan sentitzea nahikoa jakon barne-eraldatzaileari abiarazoteko.

Sentiberatasuna nagusi zaneke egoera honen luze iraun eban, ez ostera Annik gura eban beste. Maitasunaren begiak lausotzen joiazan joan eta lausopean begi aurreko ikuspegiari galdutako paradisia erexten eutsan, zentzumenetatik etorkonak zirkuitu herdoildua besterik ez eban aurkitzen, harrezkero txinpartarik bizienak be bizibarrituko ez leuken zirkuitua. Sean gero eta urrinago egoan, haren ikutua geroago eta hotzagoa zan. Horimina laru bilakatu zan. Loreak igartu egin ziran. Eta Annik, South Gate igaro, eta alde egin eban, atzera begiratu be egin barik.

Hortik ikustezina, minberakaitza izateko guraria. Gurari horrek bultzatuta heldu zan Canterburyra. Hemen denpora emeki-emeki joian eta denporak berberak asmo hori betetzeko prest egoala emoten eban. Laneko eta osterantzeko joan etorrietan Annik berak be bere burua ikustezintzat jotzen eban, horixe sinestu-

ta bizi zan, harik eta Isseseren lagun batentzako lana burutu behar izan eban arte.

Isseseren begirada gartsuak gorpuztu eban Anni, gorputzari itxura emon eutsan, Anni barrero ikusi eitekean gizakia zala ebatzi. Anni bere aldetik beste norbaiten begirakunea atxikita gelditzen jakola konturatu zan; ustez ikustezina zalako pentsabideari jarraituz ordurarte berari zuzendutako begiradek gorputz garden bat zeharkatu izan baeben be, ordutik aurrerakoek ezgardentasuna aurkituko eben euren bidean. Igarobide izatetik pausaleku izatera doaneko bilakabidea ez jakon bape erraza izango Anniri, ohituta egoan-eta bere hautamenean bizi izaten, ez ikusiarena egiten, baina orain baliabideok ez leuskioe betiko balio izango, besteen begirakuneei eutsi egin beharko eutsen eta, galdezka etorkozanei erantzunen bat emon beharko eutsen eta.

Begiratua, aztertua izatea gitxi balitxako lez, begirakune gartsuen ostean ziztu bizian etozan azkon zauritzaileak alderatu beharra egoan, deskuidatu ezkerro zirt-zart baten bihotzeko jopuntua gurutzatuko eben gezietatik alde egin beharra, sarritan geziei eurei atzera eginarazoz. Geziren batek urratu eban urratu, azaletik zauritu ebalarik, baina baeban sendabedar

nahikorik era horretako beharrizanetarako berariz gordeta.

Besterik ezean mobimentu eta erreflexu guztiok ernearazo egin eutsien eta aspaldiko bizimodu geldoa aldatuarazo. Dardarketa oharkabe batzuk euren lana egiten hasi ziran, Anni bera konturatzen ez zalarik. Euron eraginez zutarri sendoak irudienak apurka-apurka hauskor bihurtuz joiazan. Igeltseroa balitz legez euskarriak jartzeari ekin eutsan konturatu zanerako.

Katedrale inguruko argipean egoala, orain-tsuko mobimentuok ebilkozan buruan jira eta biran, oroitzapen nahasiekaz batera. Egunsentia hurreratzen zalarik, halako baten eraso eta kontraeraso berbak agertu jakozan burmuineko orrietan idatzita, kezka guztien laburpen lez. Orduan Isseseren eta bion artekoa, artekorik zeozer balego, ez litzatekeela gudu bat izango ebatzi eban. Eta Stour errekarantza abiatu zan, hango uraz garbitu eta emondako berba bete egingo ebala aginduz.





**INGELES BAT, ETA GERO  
BESTE BAT, BILBORA  
ETORRI ZIRANEKOA**



Ingeles bat etorri zala Bilbora, horixe dinosku kantu zaharrak, behin eta barriro abestu dogunez. Bertako itsasadarra eta itsasoa ikusteko asmoagaz etorri ei zala, ikusi eta gero barriro etxera joateko usteagaz, antza.

Asmoak asmo eta usteak uste, bertako emakumeek erakarrita, Itakarako bidean Ulisesek aurkitutako itsas-laminen antzera, Bilbon zala gelditu ingelesa, hareen aurpegi politei begirabegira, hareen gatz eta piperrak ezpainetan itxitako zaporea milikatuz. Bazkalosteetako euforian abestutako kantuak belaunaldiz belaunaldi indartu dau geure buru-estimua, gure kantuaren doinu-hotsa eta ingelesen ixil-poltsaren diru-hotsa parekatuz.

Ingeles bat etorri zala dinosku kantuak, baina nongo ingelesa ete, galdetu leike kantuaren lehenengo bertsoa dantzuenak. Bigarren bertsoak argituko deutso nongo ingelesa zan, Ameriketako alegia, *amerikanua* kantuaren sasoietan. Hobeto ulertuko dau orain entzuleak aurreko hotsen alderaketa, goraka joango jako bere buru-estimua.

Bere herriko atlas bereziren bati esker izango eban ingeles horrek Bilboren barri, amerikar gehientzat Amerikak berak mugatzen dau-eta Amerika, bai iparraldetik bai hegoalde-  
detik, bardin ekialdetik zein mendebaldetik. Mendebaldeko itsasaldea ureztatzen dauan ozeano Barea eta ekialdekoa ureztatzen dauan ozeano Atlantikoa dira eurontzat munduko itsaso bakarrak. Liburudenda-oste hautsez betetako baten, erdi gordean ziratekean paper eta mapa artean ikasiko eukean kantuko ingelesak baegoala egon munduan Kantauri itsasoa izenekoa, itsaslabar malkartsuak eta itsasgora eta itsasbeherekin kukuka olgetan daben hondartzak zituana. Malkarrok igarota egon baegoala Nerbioi itsasadarra izenekoa orduan, nabigarria Areatzaraino.

Mundu zabalerako mapak, baita nabigazino-mapak eta iparrorratz-kutxa be aldean eroazal-  
a abiatuko zan hori ingelesori etxetik, San Frantziskotik zein New Jerseytik, itsasontziz, presarik bako bidaldiaren ostean Bilbora hel-  
tzeko. Portuan legokezan jakingura bakar batzuek harriduraz eta zalantzaz beterik begira-  
tuko leuskioe, ustez inongo mapatan agertzen ez zan lekurantza abiatzear egoan bidaiariari.

Hogeta hamar eguneko bidaldiaren ondoren, hara non egingo eban Nerbioi itsasadarrean

barrura. Aginte-zubitik adi begiraturuz, berehala konturatuko zan itsasadarreko albo bata eta bestea, ezkerrekoa eta eskumakoa hain zuzen be, usain eta kolore ezbardineko zirala, albo batean Labe Garaietako tximinietatik kea dariola, bestetik paseoan ebiltzanen kolonia usaina etorrela. Ontziko liburuan idatziko eban antzemandako guztia zehatz-mehatz.

Itsasadarrean gero eta barrurago, orduan eta ilunagoa zan ura, harik eta Bilbora heldu arte. Sasoiko kronikek kontetan daben eguraldiaren grisa, uriko itxuraren tristea, itsasadarraren kolorearen ugerra, horreek guztiak ez jakozan ingelesari hain txarrak begitandu, Bilbon gelditu zan eta, kronikak berak dinoskunez. Eta ingelesaren kantua noiz edo behin abestu dauanak, esker oneko agertuko jako inongo mapatan agertzen ez zan uria ezagutzeko jakinminez bere herritik abiatu zanari.

Urteak igaro dira baina, ingelesa Bilbora etorri jakunetik, ez dira alperrik igaro gainera. Izan be kantu zaharraren abeslariak eta entzuleak beste musika batzuetara ohitu dira. Gaur egungo Bilboko kaleetan dabilzanek, gehiena ulertu ez arren, ingelesez abestutako kantuak dabez belarriratzen, beharbada baita burmuineratzen be. Ingelesak nonahitik jatorkoz Bilbori, eta bertako hainbat eta hainbat ingeles-

eskola eta akademiatako ikasle gailenen ariketa zera da, Ingalaterrako edo Ameriketako Estatu Batuetako ingelesaren azentuari antz emotea.

Gaur egun inor gitxik eskainiko leuskioz hogeta hamar egun leku batetik bestera joateari. Inor gitxi horretan sartuko lirateke luxu handiko transatlantikoetan hara eta hona dabilzianak, jakina. Uberatzat itxiko leukien txintxinhotsa, nekez gailenduko litxakio kantu zahararren hotsari.

Behinolako ingelesak ontziko liburuan idatzitakoa irakurrita, itsasontziz etorten ausartuko litzatekena, harriduraz begiratuko leuke itsasadarraren albo batera eta bestera gero. Ez leuke Labe Garaietako tximinietatik gora kea dariola jadanik ikusiko, lehen begiratuan antzeko samar begitanduko litxakioz alde biak, lehen begiratu baina gehiago behar da-eta ez-bardintasun antzemongatxak ikusteko.

Presaka ibilte honetan, hegazkina da garraiabide aukeratuenetakoa, holan jatorkuz bisitari asko eta asko, ingelesak be tarteko. Bilbotarren belarriak, orain, euron barrua itsasadarrean husten eben fabriketako adarrak edota itsasontzietako sirenak entzuten baina ohitua go dagoz zerua urratzen daben hegazkinen burrunbak entzuten.

Oraintsu orain Bilboko bertikalaren gainetik hegazkin-saldo bat pasatu da: hegazkin bonbaketariak, ehiza-hegazkin bonbaketariak eta hegazkin inudeak, udabarriagaz batera jatorkuzan hegaztiengandik guztiz ezbardin. Hareen txio-txio hilgarriari ingelesa eretxi deutsie bilbotarrek, baina ezta belarririk finenak be, ezin izan dau nongo ingelesak diran bereiztu, ezin izan dau brush-brush-brush edota brair-brair-brair egiten ebenik esan. Gainetik hegan egite hori lelotzat hartuta, kantu barriren bat asmau eta abestu beharko geunke behin eta barriz.





# **EMILIAREN ZAIN**



*“Gaur egin egin dot. Koaderno hartu eta zabaldu hain zuzen be. Aspaldi-aspalditik nigaz batera, batera eta bestera ebilen koaderno, edota mutu eta ixilik apaletik niri begira eta deika egoan koaderno, hartu eta zabaldu egin dabe nire esku dardartiek.*

*Nik neuk be ez dakit zergaitik zabaldu dodan gaur, gaurko moduko egun euritsu, gris eta ilun baten, nire herritik urrin, ez dakit zerk bultzatu nauen hori egitera, luzaroan itxita egon dana zabaltzea nork agindu deustan. Horixe ez dakidan bezala, ez dakit be zergaitik iraun dauan itxita neure koaderno honek hainbeste denpora, orriak koadernoazal artean estututa, azalok berunezkoak balira legez eta nire eskuok azalok altzateko ahulegiak.*

*Jakin beharko neukela jakin dinotsat neure buruari, edo agian, hori jakiteko bidean jarri beharko nintzatekela, orain arte bezala behintzat, errazoiari lehentasuna emoten badeutsat, ekintza guztiak alde zurretik pentsau eta, gehiago oraindino, egindakoaren ondorioak aztertzeari sekulako eta, agian, merezidu*

*dauan baino garrantzia handiagoa emoten ba-  
deutsat. Ez ete da, baina, dinotsat oster a neu-  
re buruari, ez dodala honezkero eta gehiago  
holako errazoibide batzuetan niretzako hain  
kaltegarririk jarraitzerik nahi? Zer eta beste  
bide batzuk jarraituko baneuz, nora eroango  
nindukie bideok?*

*Bidean buelta emotea, baina, ez da ez erraza,  
bide oro harri txintzarrez, gitxienean, betea da  
eta badirudi harri txintzarrok geure oinazpi  
gero eta nekatuagoetan, gero eta minduagoetan  
lapak bezala itsatsirik, aldaketarako mobimen-  
tuei enbarazo besterik ez deusiela egiten.*

*Horixe berori hain zuzen be gertatzen ei da  
geure burmuinetan be, konexino edo lotura bi-  
deak dirala-ta; batzuk, ondo be ondo ezagu-  
nak eta finkatuak dirudie, informazino, ideia,  
sentipen guztiak –baita sentipenak be?– euro-  
tatik doazala; beste batzuk, ordea, inoz erabi-  
li gabeak eta bateren batek edo erabili daia-  
zan zain dagozanak. Gure burmuina egiteko  
prest legokenaren ehuneko hamarren batzuk  
baino ez ei ditugu erabiltzen eta, agian, zuzen  
legokez holan pentsetan dabenak, tokian toki-  
ko eta aldian aldiko egoerak ikustea besterik  
ez dago eta erabilera eskasaren aldeko teori-  
ko-praktikoei errazoi emoteko”.*

Holan inoan Emiliak esku artean erabilen koadernoan idatzitakoak. Koadernoko orri higatuetan idatzita agertzen dana, letra txiki bihurriez idatzia, hori bai, horixe bai ezagutzen dauala, bere ahiztaren idazkera ahaztezi-na baita. Letra txiki bihurriok adierazoten da-bena edo adierazo nahiko leukiena, barriz, ez jako hain ezaguna egiten. Hori be bere ahizta-rena ete?

Koadernoan zahar xamarra da, orri laukidun horreetakoa. Zabaldu eta itxi, itxi eta zabaldu ekinaren ekinez, koadernoaren azala, inozko-ren baten urdina izandakoa, mehe-mehea eta gastatua dager.

Gehiago ikusten saiatuko da, azal urdinaren gainean txakur txiki batzuen irudiak dagozala emoten dau, garranga gorridun txakur txiki batzuk. Bai, oraintxe jatorko burura urte batzuk lehenagoko koaderno horren irudi argia, bai, urdin iluna zan, azal gainean ilada baten ezkerretara eta hurrengoan eskumatara alkarri begira jesarrita egozan txakur txiki sakabana-tuak, euren narrua laukiduna eta gangarra go-rria, lazadatxo baten antzera jarria.

Hori bezain argi gogoratzen dau orain zer-bait idazteko orri punta baten bila ebilela, ko-aderno bera ikusi eta orri punta hori apurtzera joiala, bere ahiztarengandik hartu eban ezezko

biribil eta berehalakoa. Ez eban ulertu orduan, zertarako gura ete dau hain barri-barri gorde koaderno hori sekula be erabiliko ez badau, holakoren bat edo esan eban orduan. Orain dakus azkenean zer baitetarako erabili izan dala.

*“Eta zer esan daikegu bihotzeraino garoezan bideez? Ezer gitxi, egia esateko, arlo honetan gehienek praktikara jo izan dabe eta, teoria apurren batzuentzako itxita. Dana teorizatu beharra dagoala uste dabeneztat, denpora galtzea izan da eurontzat. Honeentzat, emozinoz betetako ekintzetan buruak ala bihotzak agintzen dauaneko galdera litzateke berebiziko galdera, jakin badakie be alde bateko zein besteko erantzunak jasoko dabezala. Zenbat bihotz urratu, blindatu, berotu, hainbat erantzun etsi, kolpetsu, zirraratsu.*

*Bihotzeraino doazen bideak, handik ateraten diranak, nahas-mahasean dabilta sarri askotan edo gehienetan, hori dinoe behintzat gure egunotaraino horrezaz zer bait esan dabenek, zientzialari, poeta zein horoskopopigarle izan. Hau guzti hau baina, eta orain konturatzen naz, ez dator aurretik esandakoagaz bat, hau da, bideak ondo be ondo finkatuta dagozala eta zaila dala errailetatik kanpo ibiltea dinoen horregaz.*

*Hainbeste berba eta berba, neuk be ez dakit honezkero nondik eta zertan nabilen, eta txarrena litxakidana, gainera, alperrik ibiltea litzateke. Ondo pentsaurik baina, ez dago alperrik gabiltzala esaterik lehenago ibiltekorik egin ez badogu, beraz, bata egiteak bestea lekarke eta holan jarraitu geinkean infinitoraino. Berba halakoa, infinito. Oraintxe bai ez dodala hemendik jarraitzerik. Nakion ba hariari”.*

Hori berberori dinotso Emiliak bere buruari, edo bere ahiztaren buruari, honen berba jario-agaz aspertu antzean. Asperturik alde batetik, harrituta bestetik, inork galdetu izan baleutso, “Nor da zure ahizta?”, ez leuke bere ahizta holan deskribatuko eta: “Hitz-kate aspertua dariona”. Eta egia osoa aitortu behar badau, bere ahizta ezezagun galderazale horren berbok erakargarriak jakoz oso eta aurrera egiteko bultza egiten deusie.

*“Nakion hariari, zein hariri baina galdetzen deusat neure buruari, matazaren zein hariri tiratu, hori litzateke galdera. Zerbait asmakor erantzuten ahalegindu naz baina nik-neuk-bakarrik-asmauko-neuken dalakoa esatera ninoiala, neure eta neure buruaren tranpa bat besterik ez dala konturatu naz, berba etengabean jarraitu daidan tranpa izugarria, eta oraingoz behintzat, ez neuke horretan jausi*

*gura, beraz nakion hasierako hariari, berbaz, itxurazko berba sentikorrez bete nahiko neuken koaderno hau gaur arte zabaldu ez izanari jagokon harira hain zuzen be.*

*Hasteko, esan daidan ez dodala hemendik aurrerako berba jarioa hain samurra izango jatanik uste, hau esatean zergaitik esaten dodan benetan ez badakit be, susmoa besterik ez daukadala oraindik. Esan daidan baita, orain arte nire susmoak bete bete egin dirala, nire onerako zein nire kalterako izan, susmotan oinarrirituta aurrera zein atzera egin.*

*Nire esku dardartiak izan daitekez lehen lorratza, zer dala-ta dagozan urduri neure eskuok. Eskuak holan badagoz, zer esanik be ez nire barrua antzera samar dabilela, hori zalantzarik barik. Ezezagunaren aurrean urduri, ustegabekoren bat aurkitu daikeelako bildur, handinahikeria betetzerakoan huts egingo ete dauan ikarati, egoera guztiok jakoz posible erronkari aurre egiten deutsanari. Aurre egiten deutsana neu naz kasu honetan, nik neuk zabaldu dot koaderno, ez beste inork, niri jagot, beraz, zerbait esatea.*

*Zer ete da zerbait idazteko asmoz koaderno bat erosi, luzaroan zabaldu barik aldean eroran eta behingoan zabaltzeko keinua egiten danelako momentuan sentitzen dana? Erantzun*



*egizu burura jatortzun lehena, eta ez besterik. Hor doa ba, paper zuri hutsik dagoanari deusagun bildurra. Hauxe izan da belaunaldiz belaunaldi idazlerik gehienek, hangoek zein hemengoek, hasibarri zein saiatuak izan, bai erabarrizailleek bai zaharkituek agertu izan daben sentsazioa, orrialde zuri inuxente bezain maltzurrek sortarazo daben ikara uni-bertsal paregabea.*

*Bildur horri gainerik egiteko hainbat salbaidide erabili izango ziran, hamaika lan eder askoak irakurriak baikara, guk hori bildur hori sentitzeke. Hutsala dirudien arren, buruan alde zurretik zerbait pentsaua eta idatzia baltz, paper berberori ez litzateke hain zuri eta hutsik agertuko. Milaka apunte, ohar eta paper punta, poltsiko zein kaxoi edota ustegabe-koen lekuetan sakabanatuak lirateke horren adierazle. Hainbat motatako idazmakina, baita noraino helduko dan ez dakigun teknologia barriak lekarkena be erabili daiteke baliabide gisa. Ez dakigu makinok zuri eta hutsik agertuko diranentz, eta makinok deusegun bildurra eta bildurron gainerik bideak adierazteke eta erakusteke dagoz. Begoz hor beste belaunaldi batzuen zain.*

*Ezezagunari deusagun bildurra, baina, ez da zoritxarrez bildur bakarra. Hori nahikoa ez*

*balitz, ezezagunari beste bildur deutsagu eza-  
gunari, sekretu izatetik ezagun izatera heldu  
danari, gaizki egindakoaren ondorio ezaguna-  
ri, mendez mende aurrikusitako ekintzek zein  
halabeharrak saihestezinezko ohitura bihurtu  
daben ezagunari. Ezagunaren ezagunez ezin  
dogula berba bat bera be gehitu, esan beha-  
rreko guztia esanda dago eta. Horra hor sen-  
tsazino barria, esku dardartiek koadernoak za-  
baldu orduko susmetan dabena, idatzi daite-  
ken guztia idatzita balego moduan”.*

Koadernoaren puntu honetara heldu eta gero, gelditu egin behar dau Emiliak bere irakurketa. Bere ahiztaren antzera, berak be ez daki zergaitik egiten dauan hori, eten hori alegia, baina egin egiten dau. Susmoren batek ohartarazita beharbada, behin eta barriro antzemoten dauan bere susmo egiaurrekoren batek ohartarazita.

Bere ahiztak dinoenari darion fatalitate kutsua ez jako bape atsegin berak orain bizi dauan momentuan. Nork esango bizimodu arruntaren aldean muga-hausle agertzen zan ahizta horren fatalista eitekenik. Halako irribarre zalantzagarrri bat edo ezpanetarutzen jako etxean mila aldiz entzundakoa gogoratzen dauanean, gure Emilia fatalista hau dalako esaldi ezagun bezain gorrotagarria hain zuzen be.

Koadernoaren puntu honetara heldu eta gero gelditu dan bezalaxe jarraitu behar dau aurrera orain, jakinminak –ala fatalismoak?– eraginda.

*“Ez da, orain ez, hutsik dagoan paper zuria begietara min emoten deustala bere distirarekin, alderantziz baino, une honetara helduta letraz beteriko orrialde laukidunek harritu egin dabela nire begirada. Nire eskuak ezin dau aurrera egin hemen idatzita aurkitu ditudan berbok traba egiten deutsoe-eta. Kolpe handiegia nire estimarako, zerbait esateko dudalako ustean beste norbaitek aurrea hartu deustelako. Errazoi izan daike aurrelari horrek, munduari ezer barri originalik esateko ez dodala uste izan badau, aurrelari gehienek uste izan ohi dabenez.*

*Momentu honetara eta munduko leku honetara etorri behar izan dot egoera hau bizi izateko, jazoten jatan guztia atzerrian bizi nazelarik jazoten jat eta. Urrinera etorri behar, urrineraino aldean ekarri behar koaderno, zer eta, seguruenik be, nire herrian bertan idatzita dagoala konprobatzeko. Ez daukat igesbiderik. Ustez nire atzean itxitakoa nigaz batera etorri da, nigaz bat eginda, nire itzal banaezinaren antzera.*

*Atzerrira joateko erabagia hartu neban orain urte batzuk eta egia esan orain arte*

*ondo moldatu naz oso hemengo biztanleen hizkuntza eta bizimodura. Oraindik orain atzerritartzat naukie bertakoek eta nik neuk be hatakotzat joten dot neure burua, ez baina sarritan neure herrian bertan sentitzen neban baino atzerritarragozat.*

*Nire herrian hizkuntza bi dagoz. Bi dinot, zenbatu ezkerro, bata eta bestea, bi diralako. Baina euren erabilera eta estimazioa kon-tuan hartu ezkerro, bat eta erdi dirala esango neuke, eta erdi hori esateko modu bat besterik ez da. Bat dan hori beti nagusitzen jako erdi apur horri. Erdi horren hiztunetako bazara, orduan atzerritarra izan zaitekez zeure herrian bertan, bat deitu dodan hizkuntza horretako edonork seinalatu zaikez bere atzamarrez. Gauzak holan, eta behingoz benetako atzerritarra sentitzeko, atzerrira joatea erabagi neban. Nire herriko batzuk, nire familiako batzuk, ez ebezan nire errazoiak ulertu, edo ez eben ulertu gura izan. Niri bardin jat orain.*

*Egia osoa esan beharra badaukat baina, orain horren gogoan aurkitzen naz eta, ez zan hori izan atzerrira joateko bultzatu ninduen errazoi nagusi bakarra. Tartean baegoan egon nire ahizta Emiliari eta niri, bioi, egokigun jazoera bat, lehenago esan dodanez ezer gitxi dakigun bihotzerainoko bideei be egokien jazoera bat”.*

Ahiztaren atzamarra bere bihotzeko zaurian teink egiten sentitzen dau orain Emiliak. Hori zauri hori haragibarritzen eukan Emiliak, guztiz haragibarrituta esango eukean, baina bihotzeko haragiaz, horrezaz asko dakienek dinoen bezala, eskakizun handiko tentsino egoeratan, behin zauritutako bihotza ez da harrezkero horren haragitsu. Urte batzuk lehenagoko jazoe-ra haragi bizian agertzen jako barriro be.

Bete da bere susmoa, orrialde batzuk lehenago fatalitate kutsuari usain egin deusanean izandako susmoa. Heldu dira ahizta biak gakorra, idatzita dagoan zortzigarren orrialde honetara iritsi diranean. Hemendik aurrerakoa irakurria eta bizi izana dabe ahizta biek orain urte batzuk. Euren ahotsek bat egiten dabe hitzok urkultzerakoan.

*“Kobazulo antzerako bere gelan ordu gel-diak zelan igarotzen ziran ikusten hainbat denpora emon ondoren, leihoz bestaldetik beste argitasun bat etorkiela igarri eben Emiliaren begiek halako baten, bere barrunbetik etorkon iluntasunak erdi itsututa eukazan Emiliaren begiek, begi zaurituek, igarleek.*

*Nekez altzau eta hurreratu zan leihorantza, ordu eternalen eragina nabaria zan-eta bere hazur eta betazal astunetan, denporaren iraganaren zama beragaz bat eginda baletor mo-*

duan leihorantza. Atzean itxi eban irratikasetean mutu egoan orain The piano pelikulako musika, doinu honek mutu eroiazan hainbat ordu, Emiliaren belarrimintzek izozturik eta horrexegaitik irazgatx eroiezan ordu berberak, emakumearen atzamar nekatu eta astunak buelta noz emongo zain.

Bai, egia zan bere begiek inotsena, bestelako argia zan, argi biguna, harreratsua, urratu barria, leihoz bestalde ikusi eitekean argia, ilunetara ohitutako Emiliaren begiak, gaztain kolorekoak, mindu ebazan argia. Argitara zenbat eta ohituago orduan eta gaztainduagoak irudien begiek ekusena udabarri hasi barriaren lorratza zan nonahi.

Udabarriaren lorratza, neguko lainodura ilun eta grixaskak alde egin ondoren agirian itxitako eguzki epelean, laino berberok urratu ostean geroago eta ausartago agertuko zan eguzki beroan, udabarriaren lorratza baita zuhaitz pinportetan be, lurrazaleko belar eta lore ernaminduetan, haizeak batetik bestera eroian lorauts ernaltzailean, baita argi barriak noz jantziko ebazan zain egozan personen eskerroneko aurpegi alaietan be, nonahi begiratuta be udabarriaren aztarna besterik ezin eitekean ikusi, agiri-agirian eta ausart, berezko indarrean.

*Emiliak, baina, hotza eukan bihotzean, bere bihotza hozturik egoan, edur-jausi barriaren geruzen azpian dagoan izotza bezain hotz, neguko gauerdietan ameskaitzek esnarazitakoan nabaritzen eban hotz berbera, hilzorian dagoana harritzen dauan hotz goiztiarra balitz moduan, odol bero geldiezina izotz atxekia bihurtzen dauan hotza, bihotz-sare guztia blindatzen dauan hotza.*

*Eguzki errainuek epeltzen eben beiraren kontra jarri eban bekokia, bere sen kontrajarririk, epeltasunaren egarri, hartara bultzatuko baleu legez, beira epela ikutzeak bere sentipen hotzak uxatuko balitu bezala. Bekokia jartzerakoan, baina, hotzikara zaurtu batek zeharkatu eban bere gorputza goitik behera, azaletik sakonerainoko hotzikara zaurtuak, buruari atzera eginarazoz. Zartada hartu ondoren, orduan bai, orduan bihotza ezezik gorputza be hotzitura jakon gelditu Emiliari, igarotako neguko haize hotzak ekin eta ekinean jardun ondoren bereganatuko beira jo izan baleu legez.*

*Kanpoko argitasunak erakarri aurretik eukan jarrera berberera egokitu zan Emilia bere kobazulo antzerako gelan, bapatean, berez-berez, kirikinoa ezer nabaritu orduko kiribilatzen dan modura, ordutik aurrera denpora barriro*

*zelan pasauko zan ikusteko jarrera sor nagitsu ezagunean.*

*Bere ahizta, beti be, baina hilabete batzuk lehenagotik oraindino odolberotuago egoana kalera joana zan ingurutik etorkon hoztasu-netik iges egin gurean, batetik, azaleko xularmenetatik erion berotasun kilikagarriak epeldu be epeldu ezin eban Emiliarengandik alde egiteko susmoren batek holan agindu izan baleutso bezala, eta, bestetik, udabarriaren beharrian handiagoa baleu bezala, kontrako poloek bata bestea erakartzen dabelako teoriari zein beste edozein teoriari kontra egiteko eban nortasun muga-hausleari jaramon eginik.*

*Emilia bere ahizta beti be fatalista samarra izana oraindik fatalistago ikusteak, hain suntsitua eta mugiezina ikusteak pena sentiarazoten baeutsan be, bera maiteminduta egoan, norbaitek bere bihotzeraino zuzen joian bidea aurkitua eban udabarria baino aurreratxoago, eta bihotzbideko joan-etorriotan sorturiko sentipenak ziran nagusi bere baitan, inoz bururik makurtuko ez ebala inoen berbera makurtzen eben sentipenak hain zuzen be.*

*Zaldi zoro abiatu batenak bezalako bihotz taupadek hegaz eroien pisurik gabeko gorputzaren antzera aidetik zehar, handik goitik bai*



*bere herria bai mundu osoa be jango ebalako ustean, bera bezala bihotz taupadek hegaz eroango eben maitalea bere ondoan ebalarik.*

*Izan be kalera joana zan maitaleari bere bihotza zabaldu eta erakusteko, bere ustezko maitalea ez zedin luzaroago ustezkoa izan baik eta benetakoa, asmo horregaz joian, baita bihotz bi ustez birberotuk alkarregaz topo egi-terakoan sortu daiteken leherketaren bildur edo susmo txarragaz be.*

*Ahizta biok bata bestearen susmotan baebiltzan be, ez ekien jakin oraindik euren bihotzak, batarena hotz eta astun, bestearena bero eta arin mantentzen ebazan maitalea bat bera zanik. Emilia, bai, Emilia izan zan jakinaren gainean egon zan lehena, udabarriaren argitasunaren epelak erakarrita bere bekokia beira hoztziaren kontra jarri ebanean. Hoztasunari kontra egin izan baleutso, bere bekokiak beira gainean jarrita luzaroago irauin izan baleu baina, ez zan orduan fatalitatearen hondorik gabeko zuloan jausiko.*

*Aurpegira, begietara, apenas begiratu bari-rik, agur esan eutsoen alkarri. Orduantxe be bata besteari luzarotxoago begiratu izan baleutse, jakingarri zenbait ikusiko eben begio-tan. Denporak eta lekuak banandu ebazan ahizta biok, denporak berak, lekuak berak ja-*

*rri ebazan sendabidean euren bihotzak, balsamoren baten zain egozan bihotzak”.*

Hemen amaituko da Emilia irakurtzen dabilena. Berak amaitu arren, segundo batzuetan oraindino bere ahiztaren ahotsaren oihartzun eztsua jatorko belarrietara, berak luzaroago iraun nahiko eukean oihartzuna. Oihartzuna ezezik laster bere ahots propioa be, bere aurpegia be ikusteko aukera izango daualakoan dago, ez eban eta alperrik egingo urte batzuk lehenago bere ahiztak egin eban bide berbera, leku berbereraino, hemen bere ahiztaren koarderno higatua aurkitzeko bere zain, Emiliaren zain.

**ITSASOTIK DATORKENARI  
BEGIRA-BEGIRA**



Itsasoa inspirazino-iturri agorrezina dala entzun izan dau behin baino gehiagotan idazle gurakoak. Musak, itsas-laminen antzera, itsasotik deika jabilkozala esan izan deutsie, eta berak sinestu. Lehorrekoa izanda, hor non abiatzen dan, beraz, domeka arratsalde batez itsasoaren bila. Aurreko egunetako bero-bolada iraganeko arazoa dala emoten dau emon eta itsasbazterrera heltzen danean aurpegira joa-kon eguzkiaren epelak eta itsas-brisa gozoak ondoetorria egiten deutsie.

Bedartzak eta hatxak inguruan, basa-pikondo bakan batzuk han-hemenka dituala, lehorraren muga izan daiteken harrizko hormaren gainean jesarriko da, hankak itsaslabarraren gainean dindilizka. Arratsaldeko azken eguzki-printzak Ogoñoko hatx-buruan ispilatzen dira. Itsasgoraren ordua da, ez dago baina olaturik apenas, metatutako beroak itsasoa bera be leundu egin dau eta, surflarien zoritxarrerako.

Begiak itxita, itsasoari begira dago. Kaio haus karen kurruxkari lehorretik datorren oihartzuna erixten deutso.

–Erdu Aurori hona, bakar-bakarrik zagoz hor eta!

Inguruan daukan andra koadrilaren berbeta jatorko kaioenagaz batera. Koadrilan egon arren, bata bestearengandik aldentu samar dagoz, hiruzpalau batera erdikaldean barriketan, Aurori eta berari deika jabilkona alde banatan, ertzetan hain zuzen be.

Eguzkia hartzen dagoz androk, sasoiko androk, bizitzak kolpeka zizelkatutako gorputzak bainujantziaren armazoitik gainezka egin gurean. Buruan, oihalezko txanoak. Eurotari-ko batzuk bainujantziaren gainetik gona dauke jantzita, armazoa armazoiaren gainean, ez da dana erakutsi behar, zer esango leukie ingurukoek halako sasoiko andrak halako itxuran ikusita pentsauko balebe bezala.

Ingurukoek, bakotxa berera dagoz eta, ez deutsie apenas erreparatzen. Itsasoari begira dagoan idazlegaiak esango baleutse, “aizue androk, egon zaiteze trankil, erantzi eizuez gonok, emoiezue gozatua bainujantzi dotoreen azpiko gorputz barreiatuoi”, horixe berberori esango baleutsie ez leuskioe jaramonik egingo, inoren begiek norberenek ikusten dabena ego-kitzen dabeneko sasoiko andrak diran ezkerro.

–Erdu hona Aurori, ni neu be bakarrik nago eta –ekinean bestea.

Bakardadea dager arratsalde-pasan dagozanen artean. Aurorik baina ez dau zirkinik egiten dagoan lekutik. Ez dauka momentu horretan inogaz berba egiteko gogorik. Gogorik baleu, triste dagoala esan beharko leuskio besteari, itsasoak senarra irentsi eutsanetik bakar antzean sentitzen dala, alabak ez deusala jaramon handirik egiten, bueno, jaramon jaramon bai, baina ez berak gurako leuken beste-koa, semea, badakizu, beti lan eta lan, hara eta hona dabil, nahiko egiten dau gixajoak, “ah, alaba ondo kolokatuta eta beharrean gogor zenduala uste neban nik ba”, bueno, alabak be lanean dihardu, eta ume bi ditu, baina badakizu, alabak alaba dira beti edo izan beharko leukie beti, “ah, semeak ez dira beti seme”, bai, bai, baina badakizu, ez da bardin, eta hasperen egingo leuke Aurorik.

Eguzki-printzek Ogoño epeltzen dabe, eguzkiak alde egin gura ez eta bertan betirako itsatsita gelditu gura izango baleu bezala. Zeruertza zeruan agertzen diran ostarte eta lainoen araberako marra da, zuri, grisaska eta urdinaren gama nahasten dituan marra koloreanitzatza.

Idazle gurakoaren begiak zeruertzero hartaturik dagoz argazki-kamera baten kliska entzun dauala uste dauanean. Ingurura begiratu

eta bertatik dabilen bikotea ikusiko dau. Bikote gaztea, berez edo uda beroko eguzkiaren eraginez baltzaranak biak, ule kizkur luzeduna neska, patila luzeduna mutila. Izan be, biak bat egiten dituan besarkadatik askatu daitezanean konturatuko da bikotearen itxuraz.

Neska-mutilak itsasoari eroso-eroso begira egoteko bertan jarri dabezan zurezko jesarlekuetako baten zelatuta dagoz, itsasoari bizkarrara emoten deusiela baina. Holakoxe beste jesarleku baten gainean jarrita dabe argazki-kamera, kliska automatikoan-edo jarrita hain zuzen be. Alkar besarkatzen dagoz, hainbat besarkada emoten deusie alkarreri, estuagoak batzuk, nasaiagoak beste batzuk, argazki-kameraren aurrean itxurak eta saioak egiten moduan, seguru balegoz bezala, gaztaroko lehen-amodio betierekoak emoten dauan segurtasunaz, euren gustukoen besarkadak eta argazki-kameraren kliskak bat egingo dabela une berean, argazkiaren argazki-oina *Forever* izango dana seguru dagozan moduan.

Idazlegaiak esan esango leuskie prest dabela bera argazkiak aterateko gura izan ezkerro, alkarri emondako besarkadak euren gustuko klimaxa lortu dagianean esateko eta berak sarkatuko leukela botoia eta klisk egin, automatikoak baino prezisino handiagoz. Baina senak



dinotso, bikotea ikusita, nahiko eta lar dirala eurok, ez dabela hirugarren bat euren artera onartuko.

Arratsaldea aurrera doa eta eguzki-errainuak makaltzeaz batera alde egin dau eguzkia hartzen egoan andra koadrila, bakotxa bere etxera seguruenik. Izaro uhartearen inguruan arrantzan dabilzan potinak, ostera, ugaritu egin dira. Banaka bat zanak dozena ingurura egin dau. Geldi-geldi ikusten dira, itsaso barean, bata bestearengandik ez urrinegi, ez hurregi. Txipiroitan ibiliko dira hainbaten, portura bueltan urregorriaren distira izango daben txipiroitan.

Begiak potinen gelditasun eta ixiltasunean deskantsatzen dituala, hara non entzuten dauan laketontzi baten urruma gertukoa. Lehorrekoa izan arren, badoa apurka-apurka itsasontziak egiten daben zarataren arabera bereizten. Horregaitik jakin daki, entzuteaz bakarrik, urrineko potinetara begira dagoan arren, eskumatik jatorkon ontzia handinahiko laketontzia dana.

Ontzi zuria eta urdina da urak harrotzen datorrena. Dagoan lekutik ezin dau haren izenik ondo irakurri, baina grafia berezia izan gura dauan hizkiz Marrazo Jr jartzen dauala esango leuke. Sasoiko emoten dauan bikotea doa ber-

tan. Andra, branka erpinean doa, bizitzak oraingoz samur eta estiloz zizelkatutako gorputza loradun bikini azpian erakusten, berezko edo ule-apaindegian tindatutako adats horaila haizetara daroala. Gizona, atzean, lemazain eta gidari, praka motzetan, buru hainbaten soildua bisera batek estaltzen deusala. Eragiten dituan uberak bezain harro doa, dituan ondasunak agiri-agirian erakusten.

Uretara jauzi egin, uger arnasestuka gelditu arte egin eta laketontzia geldiarazteko gogoa sartu jako berehala itsasoari begira dagoanari. Laketontzia geldituko balitz, zera proposatuko leuskio brankako maskaroi ulegorriari, bera izan daitela lemazaina, berak aukeratu dagiala ontziaren norabidea. Ontziko eginkizun eta lekualdatzearen aukera litzateke proposatzailearen gustukoena. Bildur da erantzuna hau besteau ez ete dan izango, “aizan, zer uste don hik ba, ez jatan bape erraza egin erpin honetara igotea, ez horixe. Izerdi asko bota behar izan don gorputz lirain honek, ez najagon ez orain alderantzizko bidea egiteko prest”.

Urrindu da halako baten laketontziaren urruma. Zeruertzaaren marra zuria dager ezkerraldean, laranja kolorekoa eskumaldean. Itsasgora bere punturik gorenean izango da laster, hala eta guzti be bare dago itsasoa, txipiroitan

dabiltzan potinak bere horretan diraue, Ogoñok epeltasunerako oraindino prest dagoan aurpegia erakusten deutse azken eguzki-printzei.

Apurka-apurka beste doinu-hots batzuk inguratuko jakoz. Banaka binaka, batzuetan amak aurretik, beste batzuetan aitekin batera, guraso koadrila bat agertuko da euren ume koadrilarekin batera, katamar dabiltzanetatik zortzi-bederatzi bat urte bitarteko neskato-mutikoekin. *Picnica* egiteko lekua atonduta dago bertan, zurezko mahai eta jesarlekuekin, eta herriko eta inguruetako umeek, eguraldi ona lagun, urtebetetzeak bertan ospatzeko ohitura dauke.

Hasi dira ba apurka-apurka etorten. Ez deustie apenas erreparatzen horman jesarrita itsasoari begira-begira dagoanari, haren oharkabean ekiten deustie eurenari. Antza danez, Ane eta Unai izeneko neska-mutikoen urtebetetzea ospatzen etorriak dira. Lehenengo, mahai bitan paperezko zamauak jarri eta, gero, janari edari poltsakadak gainean. Amak dira mahaiak atontzen eta *picnica* prestatzen diharduenak. Aitek garagardo latak edariak hotz gordetzeko poltsa berarizkoetatik ateraten eta husten laguntzen deustie polito.

Merienda prestaketak dirauen bitartean, sa-soi betean dagoan aita batek “zu, ur azpian da-

goan kobazuloa erakutsi behar deutsut” dinotso sasoi berean dagoan beste aita bati. Bainujantzi hutsean gelditu arte erantzi, ur azpirako betaurrekoak hartu eta han doaz itsaslabarreetan behera hatxak kontuz-kontuz eta ausardiaz zapalduz uretaraino, ur azpian desagertu arte. Abentura ederra merienda arruntarekin kontrajarriz agertzen jakena.

Umeak hara eta hona dabilta, arineketan, baloiaz olgetan, bata bestea zirikatzen eta gogaitzen. Neska-mutiko biren alkarrizketa helduko jako:

–Ane, panpinekin jolastu nahi neuke orain, nahi al dozu zuk be nigaz jolastu? –dinotso mutikoak neskatoari. Honek ezetz. Nik ez dot panpinarik ekarri Unai, gurago dot baloiaz jolastu.

“Neskato honek holan jarraitzen badau, barrerri itxi behar nau” pentsau eta hasperen egingo dau Aneren amak. Mutikoaren aitak ez dau ezer entzuten ur azpiko kobazulotik, entzun izan baleu harek be hasperen egingo eukean.

Idazlegaiak itsasoari begira-begira jarraitzen dau. Berak be hasperen egingo dau. Eguzki-printzek Ogoño atzekaldera laprast egin dabe. Potinak, euren argi gorri-orlegiak ixetuta, portura bueltan datoz, urregorria plastikozko baldetxoetan.

Itsasoa inspirazino-iturri agorrezina dala entzun izan dau behin baino gehiagotan, musak, itsas-laminen antzera, itsasotik deika ibiliko jakozala esan izan deusie. Hori guztia entzunda eta sinestuta, edo sinesteko asmoz agian, abiatu eta etorri da gaur itsasertzera. Honezkero ikusi dau itsasoa. Ikusi dau baita itsasoko ura agorrezina dala, itsasgorak eta itsasbeherak arren. Zeru eta itsasoaren arteko zeruertzeko marra koloreanitza ikusi dau. Baita Izaro inguruan itsasoa bare-bare dagoala txapiroitan dabilzan potinak be.

Non dira baina musak? Non baina itsas-laminen antzera itsasotik deika ibiltzen ei diran musok? Berak ez ditu ikusi, ez ditu ikusten, duda egiten dau honezkero ikusiko dituanik be. Eurok barik, euren eskuek bereari eragin eta erabili ezik ez dago ezer patxadazkorik idazterik. Alper-alperrik egin ete dau ba gaur arratsaldeko bidaiia? Emaizta horretarako hobe etxean gelditu izan balitz.

Poema, olerkia edo dana dalakoa idatzi gurako leuke itsasotik etorritako inspirazinoak argituta; itsasoko uraren gorabeherak, zeruertzeko marra koloreanitza eta lainoen joan-etorriak alkar parekatuz eta kontrajarriz, erritmoz, musikaz eta kolorez betetako ahapaldiak idatzi. Besterik ezean, hitz lauzko ipuin edo kon-

tu laburren bat sikieran itsas-laminok gai hartuta.

Zer dauka baina horren ordez esku artean? Bizitzako kolpeek desitxuratutako andra koardila itxurak gordetzeko itxuran eguzkia hartzen, betiereko maitasuna argazki-kameraren baltzean gorde gura dauan bikote gaztea, euren ustez jagokezan eginkizunak betez urak eta haizea harrotuz bizitzan aurrera doazen andragizonak eta etorkizuneko kobazuloetan argilunak haztatzen dabiltzan gurasoen seme-alabak eginkizun barriak bilatzen. Horixe besterik ez. Gai arruntak, eguneroko gauzak, huskeriak besterik ez, basoa bere esentzian, kasu honetan itsasoa bere esentzian ikustea galarazoten deusien zuhaitzak eta orbelak besterik ez.

Urte asko igaro jakoz Izaro uhartea aurrean eukala itsasoari begira-begira arratsaldea emon ebaneko egunetik. Idazle gurakoak gurakoan jarraitzen dau, ez dau harrezkero letrarik idatzi. Urteak baina ez jakoz alperrik pasatu eta irakatsi egin deusie irakatsi funtsezko esentzia guztiak giza seme-alaben bizitzetara hedatu eta burutzen dirala.

# **IDAZLE LOGABEARENA**





Egunak eta egunak, hobeto esanda, gauak eta gauak eroiazan lorik egin ezinik, egunak eta gauak hogeta lau orduko *continuum* bat balira moduan. Eta ez zan ez lurburuko gaua deritxon efektupean egoalako edo, bizi, bizi behintzat, hemisferioaren erdikaldean bizitzen jarraitzen eban eta, erdikaldetik iparralderantzago hori bai, baina non eta Bilbon hain zuzen be, lurburuko ilunik bako gautik urrin samar.

Irudimen emonkorrekoa zan, ostera, eta, eitekeana, bizi zan lekuan bizita be, goratxoago bizi zalako ustetan bizi izatea be. Izan eitekean baita, bere irudimen emonkorarren gehiegi-keriaren eraginez, bere burua ipar-iparraldeko biztanletzat hartuta, harexek eroango leuken bizimodua eroala sinestuta bizi izatea be. Zergaitik ez pentsau, hamaikagarren hipotesi modura, berak ez eukala bere burua ipar-iparraldekotzat jota, aldrebes baino, lurburuan bizi zan bateren batek bere burua bilbotartzat hartu ebalan ilunik bako gau amaituezin baten eta horrexegaitik lorik egin ezinik egoala gauak joan eta etorri.

Pentsakizunok eta oraindino garatu barik eukazan beste hamaika erabilzan buruan bueltaka eta bueltaka idazle logabeak eta pentsakizunon zurrunbiloak ez eutsan laguntzen loak hartzeari.

Gauak aurrera eta, logabearen nekearen nekez eta logabezia bera be asper-asper eginda, loak hartuko ebalá emoten ebanean, holakoren baten ebilela, telefono-txirrinak jo eban gauaren erdian, sekulako hotsean jo be. Nor ete zan desordu horretan? Lekuz eta kontinentez oker eta gauaren orde z eguna zalakoan deika ebilen despistaturen bat ete zan ba? Lekuz eta kontinentez zuzen egon eta gauéz zala aprobe txatu gurean deitzen eban holako aurrez taileren bat behar bada. Bera lako logaberen bat beste holako logaberen baten bila akaso. Ezkutuko aho tsen batek jakinaren gainean ipinita, hau da, aspaldian lorik egin ezinik ebilela jakinarazota, bere laguntza agertu gura eutsan borondate onekoren bat be izan eitekean. Preminazko errazoiren bat zala-ta, lekuz eta kontinentez oker zein zuzen egon, gauaren erdian deitzea beste erremediorik ez eukanen bat ete zalako pentsamentua be ez eukan ez baztertze ko. Edota... edota...

Telefonoz deitu eikien en zerrendari amaiezina erexten eutsan logabeak, telefonoz bes-

taldean zatekeenaren desesperazinarako seguru-  
ruenen. Desesperazinoak bultzatuta beharba-  
da, deitzen ebanaren lehia, behingoz loak har-  
tuko eban logabeari loak hartu aurreko loas-  
man eta telefono hotsa entzuten eban bitartean  
deigile eitekezanen zerrenda egiten eutsan iru-  
dimena bezain tematia zan ezkerro, biek, bai  
deigileak bai logabe ohia izan gura ebanak,  
holan jarraitu eben luzetxo, norbere burua ma-  
kurtu barik.

Geroago eta zaratatsuago etorkon hotsak  
bizkortu egin eban idazle logabea. Ohetik arra-  
palada baten altzau eta telefonoa jaso eban.

–Nor da? –esan eban bere ahots bizkortuak,  
nor demontre zara desordu honetan esateko  
gogoia izan arren.

–Ondo be ondo dakizu zuk nor nazen. Ho-  
geta hamar egun gelditzen jatzuz, hauxe esate-  
ko baino ez deusut deitu.

Hori esan eta gero, telefonoa eskegi egin  
eban zana zalakoak. Idazle logabea, inoz bai-  
no logabeago, zur eta lur gelditu zan, berbok  
bere belarri mintzetan oihartzuna eragitela, te-  
lefonoari belarri ondoan eusten eutsala, barri-  
ro bere lekuan jartzeko kapaz ez zala, alkarriz-  
keta edo, gehiago bakarriketa hozmin eta  
ebakitzaile harek jarraitu egian gura baleu mo-  
duan.

Eskegibako telefonoaren behin eta berritako doinu bakar eta belarri urratzaileak telefonoa eskegiarazo egin eutsan. Deitu egin eutsana nor zan ala deigileak esan eutsanaren esangura zein zan, bietatik zeini ekin, ez ekian zeri ekin lehenengo eta behin. Bati tira egiteak beste argitzea lekarkelakoan, pentsamentu horregaz batetik zein bestetik hastea bardin izango jakon.

Holan ba, ahotsean barruratu zan, kontzentratu eta telefonoz bestaldeko ahotsa besterik ez ebala entzuten, buruz eta belarriz zerrendatu ebazan banan banan etxeko, lagunarteko eta beharreko ahots ezagun guztiak, baita ahaleginak egin hain hurreko ez eitekezan ahotsak gomutarazteko be. Alperrikoak suertau jakozan ahalegin guztiok, ez eban inori antzik emotea lortu eta. Izango ete zan ba, besterik barik, gauaren erdian lagunurkoari gorputzean ikara sartzea gogoko eban edozein ikaratzaille? Ez egoan ez azalpen horregaz konforme, ez egoan beraz ikaratuta, jakin baekialako bere barruan, jakin edo behintzat susmoa izan, ahots hari barru barruan, zergaitik ez ekiala baina, zeozer ezagun, etxekoren antza emoten eutsana.

Telefonoaren bestaldeko ahotsak esandakolari erreparau eutsan hurrengo. Argi egoan epe baten amaiera iragarten eutsala, hogeta hamar

egun baino ez jakozala geratzen zeozer burutzeko. Burutu beharrekoa zer ete zan, amaitze-ar egoan epea zertarako ete zan, horreexek biok, ostera, ez egozan bape argi. Horixe argitzeko asmotan ekin eutsan barriro pentsatzeari.

Lehenik eta behin, burutu bako asmoak eta eginkizunak lerroan jarriko ebazan. Baikorregia bera, bai horixe! Amaibako zeregina irudian, buruko fitxategian sartu eikean lerrodun orririk handiena be gainezkatuko leuken betebeharrak jatorkozan eta lerrokadan. Gauak eta gauak ebazan beharko danok lerro-lerroan jartzeko, zer esanik be ez, egunak eta egunak eurok betetzeko.

Tematia izan baina, eta aurrera egin eban. Holan, antzu emoten eban zereginari ez eutsan horren antzu eretxiko gerotxoago, asmo eta eginkizunon zerrenda egiteak lorik egin ezinda egotearen errazoi batzuk emotsozan eta. Betezteke dagozan beharrak, hainbatek aspalditik hildakotzat jotako kontzientziak inoz baino bi-ziago itxitako lorratzak liraten loaren eragozleak, hortaz. Baekian ba gau/egun horretatik aurrera zer egin behar eban lozorroa gura izatekotan.

Pentsamentuon haria harilkatu beharrian korapilatuz joiala erreparauta, atzera harira

etortzeko ahalegina egin eban idazle oraindino be logabeak, deigileak esandakoa oso-osoan gogoratu. Bigarren ahalegin horretan betebeharreko eginkizunen lerroena baino deigarriagoa jakon epe bat izatearena. Hilabeteko epea eukan, antza, zeozer egiteko. Egingoari begira jarrita, gauza asko ziran arren, ez eban uste epe zehatzean egitekoak ziranik, ez horixe. Bere irudimenak oparo eskeintzen eutsazan idazgaiak, baita egoerak eta personaiak be, idazle bati, idazle logabe bati oraindino eta gehiago, jagokon legez. Lerrokadaka etorkozan idazteko abiapuntuak berrirakurri ebazan. Trenari begira egoala eskuetan eukan kotxetxo gorria trenbidera jausi jakon umearena, horixe litzateke bata. Itziar, jatea ahaztu egin jakon neskarena, horixe bestea. Eta hamaika gehiago holan.

Oparotasuna, beraz, alde guztietatik dario-la. Eta ez dago irudimen jori bati epe antzeko mugarik jarri leionik, horixe uste eban idazle logabeak telefonoz epe kontuak aitatzera ausartu zanengan pentsauz. Berandu baino lehen konturatu zan, baina, horreek guztiok izenburu hutsak baino ez zirala, barrua hutsik euken azalerak, edukinik bako edukitzaileak. Idazterik ezak sortutako sentimentua beste lo eragozle bat litxakiola. Lanean jarri beharko

ebala asmoak egia bihurtu eitezan gura baeban. Lanari ekitea bere kasuan idazteari ekitea zan.

Dei egin eutsana lagun modura ikusten hasi zan. Horretarako lagungarri jakon hasiera batetik haren ahotsean susmau eban adiskide kutsua. Holan ba ez zan epea amaitzear eukala iragartera etorkon ahots salatzailea, epe horretan egin beharrekoa egiten lagunduko eutsan ahots iragarlea baino. Idazle logabearen ahotik berba egingo eban ahotsa, bere eskua orri gainean zuzenduko eban gidaria, korapilo eta trabalekuetan lagun izango eban zuzentzailea, gaua heltzerakoan lo egin egian begiak itxiko eutsazan esku laztangarria, baita nagialdi eta beheraldietan ernatuarazo egingo eutsan zirikatzailea be, eta, behar izan ezkeru, zer esanik be ez, bere idaztiren bateko personaia edota narratzailea. Hori guztiori izateko prest agertzen jakon.

Egunsentia urratzear egoala amaitu zan idazle logabearen eta ezkutuko deigile ezagun samarraren arteko alkarrizketa ixila. Orduantxe aldendu ziran bata bestearengandik, aldendu une laburrean jazoera garrantzitsuak alkarregaz bizi izateak lagun birengan ixten dauan sentimentu gazi-gozoaz aldendu be; gazia, jakin baekielako egunez gauzak beste modu ba-

tera ikusten dirana, egunerokotasunak bere gurpil errukibakoan garoazana, guk geuk gauza asko, hutsalak hainbat, egiten doguzala uste izan arren, beste horrenbeste ixten doguzalako egingai; gozoa, susmau susmetan ebelako gauez sortu eta erabilitako gaiak egunerantzako bere bidea aurkituko ebela, egunerokotasunaren sareko xularmenetatik iragaziko zirala.

Egunak eta egunak, hobeto esanda, gauak eta gauak aurrera joiazan barriro be. Idazle logabeak lorik egin ezinik jarraitzen eban, oraingoan luzaz itxarotako telefono dei ezagunaren zain. Zain egoan bitartean, lagun minak deitu egianean esango eutsana buruan errepasatuz batera, hasiera batean idatzi bako kontakizunen izenburupean hutsik agertzen jakozan leerroak hizkiz, berbaz, esaldiz betetzeari ekin eutsan. Egunsentiak holakoetan harrapatzen eban, deitu ez eutsanaren minez batetik, deituko eutsanaren itxaropenaz bestetik; begizuloak gero eta hondoratuago eta logabeziaren nekepean batetik, hasieran hizki hutsak besterik emoten ez ebenek euren barruko esanahia azaleratuz, bere lo egin ezinari be esanahi bat emoten eutsielako pozik bestetik.

Apurka-apurka eta orri zuri eta hutsaren aurreko bildurrari aurre eginaz, lorik bako gaue-tan sortutako gaiak, gaubeilako amesak pape-



leratuz, zirriborroak idazten hasi zan. Gauekoa ezezik, gauekoari egunez, egunerokotasunaren gurpil errukibakoan bueltaka eta jiraka asmautakoa gehitu eutsan, gaua eta eguna, batean zein bestean egindakoa, *continuum* baten antzera.

Lanetik etxera etorren baten, egunero lez postontzia zabaldu eban. Zabaltzeaz batera lurrera jausi ziran supermerkatuetako hainbat alperrikako eskaintza-iragarki koloretsu, lurretik altzetea be merezidu ez ebenak. Barruan, zabaldu barik be, alde zurretiko informazino jakina ekarren bankuko karta pare bat egozan. Barruratxoago oraindino, eskutitz bat, benetako eskutitza, eufemismorik bakoa, idazmakina eta ordenadore sasoiotan, eskuz idatzitakoa. Krema kolorekoa zan bere azala eta, gainean, esku fin batek letra politez idatzitako idazle logabearen izen-abizenak etozan. Alde bietatik begiratu eta, ez ekarren ez bialtzailearen izenik ez eta zigilu-markarik. Jakinminaren jakinminenez, arineketa baten, irudimenaren hegoetan igon ebazan etxerako eskilarak, susmoa eroala holako eskutitza etxean bertan zabaltzekoa zala, eta ez atari erdi ilunean.

Etxera heldu, giltzak eta eskuetan eroan guztia edozelan bota eta eskutitza zabaldu eban. Zabaldu eta oraindino zutunik egoala

hauxe irakurri eben bere begi dardartiek: “As-tebete baino ez jatzula gelditzen, hauxe esate-ko baino ez deusut idatzi”. Sinadura modura, “Zuk ondo be ondo dakizun hori”. Besterik ez, horixe bera, ez gehiagorik ezta gitxiagorik be. Ez zan berba kontua bakarrik. Idatzita agertu eta begiz bereganatutako berbon doinua, ahots epel batek esanda eta belarriz barneratutako berben doinua bera zan, doinu lasaigarria izan be, hori zergaitik inoan jakin ez ekiala oraindi-no.

Lerro arteko mezuak inotson modura, jesarri eta lasaitu egin zan, eskutitzari eskuetan eus-ten eutsala. Lasaitzeaz batera aspaldiko partez loa bere inguruan ebilela igarri eban, begiak berez-berez ixtera behartzen ebala, betazalak berunezkoak eta era berean luma lakoxeak ba-lira moduan. Loarinean bere begi aurre aurre-an ikusi ebazan eskutitzaren hizkiak eta hain-bat izenbururi edukina emon eutsen bere eskuz idatzitako hizkiak, berbak, esaldiak, danak ba-tera ikusi ebazan ikusi be, eta halako baten konturatu zan, bai, hizki guztiek esku berak idatzitakoak emoten ebela, ezaugarri berberak eukiezela, batzuk eta besteak nork idatzi ezin bereiztu eitekeala.

Begiak zabaldu behar izan ebazan bere bu-ruari amesetan ez egoala sinestuarazoteko.

Begi zabalik, ikusitakoa benetakoa zala egiaztatu eban, bere orri idatziak eta eskutitza bata bestearen ondoan jarri eta gero. Berehala beste hauxe be ikusi eban barruko begiekaz, telefonoz deitu eta idatzi eutsanak bere eskuz idazten jardun ebalá, telefonoz bestaldeko ahots epelak zuzendu ebazala eskutitza eta bere eskua; astebeteren buruan amaituta eukan “Idazle logabearena” izenburuko kontakizuna idazten jardun eban personaia zala guzti horren egile eta erantzule, eta zorioneko loak hartu aurretik eskerrak emon eutsazan barrubarrutik.



**GEURE AUZOAN JAZO ZAN**



*Jakin badakizue uda sasoian lapurreta ugari jazotzen dirana etxeetan, etxeakoak oporretara joan eta hutsik gelditzen diralako. Komeni da, beraz, oporretara kanpora zoazienon etxeak bateren baten ardurapean ixtea. Itxi, mesez, giltzak lagun edo familiakoren bati, besterik ezean, konfiantzazko auzokoren bati, etxera sartu-urtenak egin, postakoa jaso eta holakoak egin daizan. Gu guztion onerako izango da.*

*Administratzailea.*

Horixe inoan Juan administratzaileak eskuz eta txukun-txukun idatzita portaleko bigarren atean itsatsitako oharrak. Ekainaren amaiera zan, eta egunaren luzapenari, eguzkiaren geroago eta gehiagoko berotasunari, auzokoen arteko berbetaldiei, horri guztiari uda eta opor usain moduko bat erion.

Auzoan jazo eitekean edozer aurreikustek eta egoera bakotxari aurrea hartu beharrak gidatzen eban Juan administratzailearen lana, horrek eta bere uste apalean aurreko adminis-

tratzailleen erdipurdiko lana gailendu gura izateak, bere administraroaren listoia ondorengoenen atzamar puntak baino zer edo zer goratxoago itxi nahiak.

Antzeko ardurarekin ekin eutsan oharra idazteari be, hainbat eta hainbat zirriborro idatzi ebazan, esan gura ebana argi eta garbi gelditu eiten, oharra irakurriko eban auzoko bakotxak harek esan gura eutsana argi eta garbi ulertu egian. Eskuz idazten ebazan administraritzari egokozan ohar guztiak, eskuz eta ez ordenagailuz aurreko administratzaile gazteak egiten eban modura. “Polittak, polittak bai, baina zer esan gura daben oharrok, hori beste kontu bat da”, esaten eban Juanek bere artean.

“Bai gizona, baietz ba!” esan eutsan halako baten Begoñak, bere andreak, hasperen eginez, enegarren oharra erakusten eutsala, oharra erakutsi, irakurrarazi eta ea berak, Juanek, esan gura ebana ondo ulertzen ebanentz enegarrenez galdetzen eutsala. Ordurako andreak burua beste zeregin batzuetara jarria eban, uda igaroko eben etxeko zereginetara-eta. Kalerako oinetakoak jantzi, artaziak eta zeloa hartu eta hantxe jaitsiko zan Juan oharra eskuan segurtasun handiagorako jarritako portaleko bigarren atean itsasteko. Ez eban auzokorik inor aurkitu lehen erreakzioak ikusteko.



Behin ohean, eta loak hartu aurretik, egunero azterketari ekin eutsan. Zera zan egun hartako azterketa: auzokoak banan banan, hobeto esanda, pisuz pisu aztertzea, aurreko urte-  
etako informazioaz eta berak ekianaz, eta bata eta bestea falta ziranetan beretik jarritz, auzoko bakotzak zer nolako oporrak igaro eta, batez be, etxearen ardura nori itxiko eutsan aztertzea, horixe zan gau hartako zeregina. Lehenengo pisutik ekingo eutsan azterketari, lehenengotik azkeneraino, laugarreneraino hain zuzen be, berea hirugarrena izanda.

“Lehenengo pisuan, eskumatara, Carmen alarguna bizi da, izeko zaharragaz eta oraindino ezkongai dagozan hainbat seme-alabagaz; bera jubilatuta dagoan arren, seme-alabek beharrean dihardue, ez dot uste danek batera hartuko dabezanik oporrak; etxetik kanpora ezkondata dagozan seme-alabak be sarritan etorten jakoz bisitan ilobekin; pisu horretan ez da arazorik izango, beti egongo da bateren bat eta”.

“Ezkerretara Adela eta Luis andra-gizonak, euren semea eta alabeagaz, ez dot horreen bion izenik gogoratzen, jakin be ez dakit dakidan, ez deuste apenas berbarik egiten eta. Familia hau kostaldeko herri batera joaten da, hori bai, abuztuan bakarrik, uztailean hemendik ibiltzen

dira; gainera seme-alabok Aste Nagusian murgiltzeko moduko adinera iritsi dirala esango neuke, ez litzateke harritzekoa izango gurasorik bako pisutik agertzea, lotara-edo, dutxaren bat hartzera sikieran”.

“Bigarrenean, eskumatara, Manu eta Arantza andra-gizonak, seme-alabarik ez, nik dakidala behintzat. Berba gitxikoak dira, ez dakit eurretaz askorik, badakit bai lanean dabiltzala biak. Eurenetik datorren zaratagatik ezin esan oporretan ala lanean dagozan. Ez dakit zer eretxiko eutsien oharrari, ez dakit irakurri ete dabelako seinalerik edo giltzarik itxiko ete daben. Zain egon beharko”.

“Ezkerretara Bizente eta Miren jubilatua, adinean aurrera doazenak; Bizente gizajoa nahiko ezinduta dabil aspaldion, gorputzez eta animoz, eta Mirenek atzo esan eustanez ez dauke aurton alabaren kostaldeko txaletera joateko asmorik, horrek Bizenteri onik baino ez leuskiola egingo biek jakin arren”.

Hirugarrenean, eskumatara, bera eta Begoña bizi ziran, bakarrik, behin hiru seme-alabak gurasoen etxea itxi eta gero. Seme-alabok uda partean gehiago arrimatzen ziran mendi aldeko amama Begoñaren jaiotetxera, hango aire garbia eta paraje ederrak dastatzera. Seme-alabon eta ilobon zaratotsetik alde egin eta uriko

airea dastatzeko eskapadatuak egingo ebazan Juanek, pisuan lapurrik sartu ete dan ala ez ikusteko, badakizu, pertsianak igon eta jaitsi, loreei ura egin, postakoa jaso, auzoa kontrolatu, eta holakoak egin behar ditut, holakoak jagokoz-eta administratzaile bati.

Albokoak gazte batzuk ziran, bikote gaztea, Maider eta Jon, jatorrak biak, hamar hilabete lehenago umetxua eukitakoak. Batzuetan seme-alabatzat hartzen ditu, eta eurak bera, orain, aiteitatzat. Horreek bai, horreek esan eutsien udan lagunekaz kanpora joiazala, eta inongo kezka barik itxiko eutsiezala bai etxe-ko zein postontziko giltzak. “Bai horixe, zelan ez ba” izan zan oharra irakurri eta geroko erantzuna.

Laugarrenera heldu zanean, Juanen bihotzaren taupadak azkartu egin ziran, “ai!, laugarrenekoak!” esaten lez. Laugarren pisua esku bakarrekoa zan, atikoa, eta bertan urtebete pasatxo lehenago auzora azken etorritako andrazko bi bizi ziran, zein baino zein ederrago. Etorri barri izateak batetik eta euren barri handirik ez izateak bestetik, zalantzazko ospe halako bat emoten eutsien. Laugarrenari egokion postontzian honeek izenok egozan idatzita: Leonor M goian eta Luz Marina behean.

Bata azal zurikoa eta ule gaztaina kolorekoa, besteak baltza bai azala baita ulea be, batak dama-lurrina zabaltzen eban, besteak don-tzeilarena. Auzoan zabaldutako zurrumurrua-ren arabera, azal zuriduna aktorea zan, eta zurrumurrua sinesteko modukoa zan, auzo ingurutik argazkilari edo, aurpegi begiluze asko agertu zan eta eurekaz batera, auzoko bakea hautsiz.

Juanek ez ekian zer egingo eben andre biok udan, berak ekian bakarra zera zan, bere bihotzaren taupadak trostan igartzen zituela androk obraz edo pentsamentuz ikusten ebazanean. Norbere estiloan biak ala biak ziran erakargari, ez egiola inork aukerarik egiteko eskatu.

Ahalegindu zan Juan ahalegindu bata zein besteari berbea emoten, eurentzat deigarri gertatzen; batek be ez eutsan jaramon handirik egiten, baina, eta horrek bai, horrek min pixka bat emoten eutsan barrenean.

“La señorita Mendizabal anda viniendo de Francia ahora mismo, se quedará ensayando sus obras este verano”, entzun eutsan andre baltzaranari paraje urrinetako ahots gozoaz esaten gizon begiluze bati, alde egin guran eta portaleko atea musturrean itxiz.

Gaueko azterketari ekin aurreko asteko kontua zan presazko eta erdi ezkutuzko alkarriz-

ketarena, orain gogorutzen ebanez. Beraz, etxetik hur izango zirala, izango zituala-ta la-saituta, azterketari amaiera emon eta loak har-tzeko prest gelditu zan.

Abuztuko egunak aurrera joiazala, adminis-trazinoari egokozan betebeharrak atxakitzat jarrita, familiakoak amama Begoñaren jaiote-txean itxi eta uriko etxera alde egin eban Jua-nek. Bakean egoan auzoa. Portaleko freskura-ra sartuta, postontziko azterketari ekin eutsan lehenengo eta behin.

Eurena zabaldu eta barruko edukina, apurra, abuztua zan ezkerro, hustu eban lehenengo, al-bokoenaren giltza atera eta bardin egin eban haregaz. Carmenenean kusan ebilala, hara non datorren kaletik bera, “Egun on, Juan”, “Egun on, Carmen”, zer moduzkoak eta udako egu-raldiaren aipamenak eginda, agur esateko, las-ter arte. Bestea etxera igon eta gero, Manu eta Arantzaren postontziko zirrikitutik begiratu eta hutsik dagoala dakusa, “eurek jasoko eben seguruenera”. Laugarrenekoaren ahotik, ai!, gutunazal antzerako bat dager, eskua luzatu bai, baina azkenean ez da gutuna atera eta be-giratu arin bat emoten ausartuko. Gainontzeko postontziak hutsik dagozala emoten dau.

Etxera igon, ateko sarraila bietan giltza sar-tu eta inork sarrailarik behartu ez dauala-ta po-

zik, etxean sartuko da. Albokoen postakoa plastikozko poltsatxo baten sartuko dau, euren oraingo zabaldu barik itxiko dau sarrerako mahaitxo gainean. Pertsianak igon eta leihoak eta balkoia zabalduko ditu gero. Hori egitera-koan, barruko patiora begiratu, eta bigarren eta laugarreneko esekitokietan arropak eskegita dagozala ikusiko dau. Horregaz guztiagaz auzoa baketan dagoalako sentipena dauka. Orduantxe hasiko da etxe barruko eta balkoiko lorei ura egiten.

Behin uriko etxera etorri ezkeru, egun batzuetarako berton gelditzea erabagi dau Juanek, badakizu, etxea zaindu eta egiteko, bada-kigu bai, auzoa kontrolatu eta egiteko. Laugarrenekoak, bi-biak, edo bateren bat doi-doi ez bada be ikustea, horixe da izan berton gelditzeko funtsezko errazoa, errazoirik garrantzitsuena. Auzoan udan norgehiagoka gitxiago izatera, badakizu, norberarentzat aukera gehiago. Bai, gizajoa, aurkituko dau bideren bat, nahita ez bada, bestetara.

Auzoa baketan dago, bake larregi behar bada. Patiotik ez da ohiko sukalde-hotsik, seme-alabei egindako hasarre-oihurik edo telebistamarmarrik entzuten. Eskaileran gora eta behe-ra apenas dabil inor, igogailuak paralisiak jota dirudi. Gaez eta ohean gehiago entzuten dau

Juanek ixiltasuna. Urte osoan auzorako bake santuaren mira izan dau eta hori heldu danean gehiegizkoa deritxo.

Goikoenean be ez da ohiko zaratarik antzemoten, ez musikarena, ez pausu-hotsarena. Bakar-bakarrik inork erantzuten ez dituan telefono-deiak. Badira bai egunak telefonoak bost bat bider jo, erantzungailua martxan jartzeko mugara helduz hainbaten, eta inork ez dauala hartzen goikoenean, gauetz telefono-hotsa sarkorragoa eta ikaragarriagoa egiten dalarik. Goiko bateren batek altzau eta telefonoa hartu dagian desiratzen dau, etxean bizi-susmoren bat sumau gura dau Juanek.

Goizean patioan gora begiratu eta urira etorri zanean esekitokian egozan jantziak bertan dagozala hondino ikusiko dau, inork batu barrik. Egunkari eta ogitan joan daitenean laugarrenekoen postontzian gutunazal berbera ikusiko dau agirian. Jakinminak eskua luzarazo baina oraingoan be ez da postontzitik ateraten ausartuko. Etxera bueltan bere goiko pisuari darion ixiltasunak bereganatuta, tarteko eskailerak kontuz-kontuz, karrankarik sortu ez daiten, eta bihotza ahoan taupadaka, igoteari ekingo deutso. Hurreratu ahala atzera eragiten dauan hats halako bat nabarituko dau, atea zabal kirri dagoala ikusiko.

Gelditu egingo da, zer egin ez dakiela, jakinminak goitik egin eta aurrera eragingo deutsan arte. Atea guztiz zabaldu eta aurrera joko dau. Ilun dago barrua eta ezin dau ezer ikusi, ezer bereiztu. Begiak ilunetara egokitu daitezanean, itxuragabeko mukurua ikusiko dau lurrean botata etxe-sarreran. Gehiago hurreratu eta gorpu bat dala egiaztatuko dau, gorpu eder izandakoa, gorpu baltzez dotore jantzia izandakoa, ahoz behera lurrean etxunda. Atzeko horman, honako graffiti gorrimin hau: *LM, betiereko maitasuna*. Juanek berehala atzera egin eta alde egingo dau.

Hainbat aurpegi begiluze dabil ikusmiran auzotik, barria zabaldu dalako nor dan ez dakien baten gorpua aurkitu dabela laugarren pisuan. Danak dagoz portalera begira, handik nor agertuko sartu-urtenean: poliziak, forentseak, familiartekoren bat, auzokoren bat sikeran. Horreek guztiok, baina, oraindino etxe barruan dagoz, aurrekoak lanean, besteak, sinestu ezinda, etxe barruko abaroan, kalea zapaltzeko bildur.

Egunak aurrera egin ahala, ugaritu egingo dira ikusnahiak, kazetariak eta telebista-kamerak, barria zabaldu dalako nor dan ez dakien gorpua aktore ezagun batena izan daitekela, Leonor Mendizabal aktorearena hain zuzen



be. Irrikaz dagoz egon, portaletik urtengo danari mikrofonoa aho aurrean edo barruan jartzeko irrikaz. Ez dabe, baina, suerte handirik izango, barruan lanetik datozenak musu-huts itxiko dabez eta, ezelango adierazpenik emon nahi ez deusiela. Juanek hau guztia ikusiko dau leihotik, errezel atzetik barrandan, bihotza taupadaka eta mesfidantza begiradan. Zurrumurrua egiaztatzen ez danez, ikusnahientzako kalitatezko beitarik ez dagoanez, etxeak bere erakargarritasuna galduko dau eguna amaitzen danerako.

Hurrengo eguneko egunkariak bizpahiru le-  
rro besterik ez eutsiezan eskaini barriari:

*Emakume gazte baten gorpua aurkitu eben atzo uriko pisu baten. Iturri ofizialek ez dabe nor dan jakitera emon. Bestelako iturriek di-noenez, LM izeneko emakumea da, paperik gabeko emakumea, antza danez.*

Juanek hasperen egin eban barria irakurri eta gero. Minsorra nabaritzen eban barruan. Minsorra eta lasaitasuna, egin beharrekoak bideratuta eta aurpegi begiluzeez alde eginda, auzoa urtebete lehenagoko baketan egoalako.



# **UR GAINEKO LUR MOBIKORRAK**



Egun eguzkitsua eta beroa da eta Evangelia Tsangarakis hondartzan dabil ortozik urertzetik paseatzen, itsasoaren aparra bere oin hutsen kontra. Soineko zuriz jantzita dago. Noizean behin itsasoari begira gelditzen da, oin hutsok geroago eta sakonago hondoratzen jakozalarik uretan. Aurrean dakusa itsasoaren urdina eta zeruertzaren urrina. Oin hutsak hareatzen astun kateatuta sentitzen dituanean, alboratu eta oinez jarraitzen dau. Ez da hondartzan beste inor agiri. Halako baten, leku arrokatsura heltzerakoan, mina hartzen dau oinazpian.

Oinazpiko min horrek izartu eban Eve Hurt Londreseko etxean eta eskua oinazpira eroanarazo eutsan, han ezer ez ebala frogatzeko. Izerditan egoan, izerdiaren errazoiak amesaren berotasuna, bere etxeko estutasuna zein amesondoko ezinegona izan eitekezalarik. Larri sentitzen zan bai, ames berberorrek behin baino gehiagotan bereganatu eban eta.

Egonezinak baina arindua ekarren beragaz batera, benetan jakin ez arren, amesetan ager-

tzen jakon andreak jaiotzatiko izena eroialako eta amesotako hondartza eta itsaso urdinak bere jaioterri izandakoa gogorarazoten eutsielako Eve ameslariari.

Izan be, amesetan ikusten ebanaz aparte, ez ekian askorik gehiago jatorriaz. Greziako irla baten jaioa eta umetan alabatzako hartua non eta beste irla handiago baten, Ingalaterran hain zuzen be. Horretan laburbatzen ziran Everen nondik-norakoak. Irakurrita eukan entziklopediaren baten Greziak irlatan zazpi mila inguru ebazala, batzuk biztanledunak, beste batzuk biztanlerik bakoak. Ez zan askorik jakitea, beraz. Gurasoak nortzuk ebazan, neba-arrebarik edota beste seniderik ete eban, horren barririk ez eukan bape.

Gurasotzakoek, ondo beharrez, ingeleztu edo egin eutsien izena, izen aldaketak urrinetik ekarritako umearen geroa samurtuko ebalakoan. Abizena eurla emon eutsien. Yorkshireko herriska baten hezia, han bizi ebazan benetan maite izan eben gurasotzakoak, oraindino be osasuntsu. Urrintasuna urrintasun, maitasunezko lokarriak eten barik ziraun.

Bera, iparraldeko langabeziatik igesean Londresera etorria zan urte batzuk lehenago, adinez heldutasunera heltzear egoala, iragana-

gaz, hobeto esanez, bere iragan biekaz zirt edo zart egin beharra eukala ikusita.

Ez zan uriak hasiera baten erakutsi eutsan aurpegia askoz hobeagoa izan. Izan be, hamai-katxo etorren egunero urira etorkizun bila, baina uriak ezin eban bakotxari egokon lekurik eskeini eta etorkizunari ilun erexten eutsien heldubarri askoren begiek. Gazte sasoiari oinarritzko hezkuntzak eskatzen eutsana beteta, edozertan lan egiteko prest egoan Eve. Orain, eta aspalditik, garbitzaile eta neskame lanetan ziharduen.

Oinazpiko minak izartu ebanean iratzargailura begiratu eban Evek. Goizeko seirak puntuan ikusi eban. Asteguna izan balitz, arrapalada baten jagi beharra izango eban, baina ez, gaur igande goiza da, dinotso bere buruari, ez daukat lanera joan beharrik. Ohean etxunda jarraitzen dau, suerte apur batez lo gehiago egingo daualakoan. Barruan eroian iratzargailuak, oster, eguneroko ordua jota eban eta ez egoan, beraz, gehiago lo egiterik.

Ohean jesarrita, begirada labur eta arin batez begizatzen dau bere ingurua: hogeta hamabost metro karratuko gela balioanitz, hau da, sukaldea, egongela eta logela batera, eta, atos-tetxoan, bainugela. Gitxi, gehiago nahi daua-

narentzat. Nahiko, gehiago ezin dauanarentzat. Asko, ezer ez dauanarentzat. Gitxi zein asko, dana da berea, horixe da bere etxea, goizean goiz itxi eta iluntzean epeletan zain daukana.

Patxadaz gosaldu, bainua hartu eta gero kalerara doa. Bera lako goiztarrak dabil tza Londres iparraldeko auzuneko kaleetatik. Jatorri ezezaguneko emakumea trankil eta lasai dabil ingeles jatorriko ez diran gizon-emakumez inguratuta, euren denda eta saltokietan erosten dau, eurekaz kurutzatzen ditu eguneroko hitz apurrak. Nondik zatozen, nora zozozen, zein koloretakoak dituzun ulea eta azalera, zer ardura deutso, orain hemen bizi gara eta kitu.

Ordubete inguruko ibilaldia egin eta gero, *The Mirror on Sunday* egunkaria igandeko gehigarri eta guzti erosi eta etxerantza, bere bihotzeko etxerantza abiatuko da eta, han, egunkaria irakurriz, iganderoko ohitura jarraituko. Informazino orokorra irakurri ondoren, segidan doa bidaiia-gehigarria zabaltzera, garbitzailearen soldataren neurria luzatuarazoten dauan barruko amesezko indar batek eroango baleu moduan. Orri eta argazki koloretsu eta tentagarriak igarota, iragarki txikiagotan pausatzen ditu gaztaina koloreko begi ilunak. Eu-



ron artean *Sunny Tours* deritxon agentziak eskeintzen dauan aukera-aukerazko bidaia, Greziarakoa hain zuzen be, dakusa. Beste barik, boligrafoaz zirriboratu eta inguratu, eta gorde egingo dau egunkari atala. Ordutik aurrera, neskame batek aurreztu daikena baino gehiago aurreztuko dauala dinotso bere buruari, horrek, lana astoen pare egitea esan nahi badau be.

Gau horretan bestelakoa da behin eta barrizko amesa. Bera, irla gotortuan dago, hango gotorlekurik gorenean. Gorantza begiratu ezker, zeru urdina dager. Beherantza, amildegia eta ur gardena eta berdea. Ur horretatik metro batzuetara aurreko amesetako itsasoaren urdina. Atzerantza begiratzen badau, etxe izandako teilatubako hondakinak ikusten ditu. Ez dago bizitzarik hondakinon artean. Ez dau gustuko hori ikuskizunori eta beherantza begiratzen dau barrero. Uretara salto egiteko planta egin eta han doa ur gardenetan murgiltzen. Barrero amesondoko sentipen bikotxa, uraren epeltasuna batetik eta uger ez dakian Londreseko lehorrekoaren larritasuna bestetik.

Astelehena gura baino lehenago heldu zan, astelehen orok dauan astuntasuna beragaz ekaurrela. Eguna urratzear oraindino, lanerako bidean goizaren umelak eta lanbroak hartu eben

Eve lehenik, lur azpiko metroaren lurrinak eta sargoriak geroago. Egun hartan garbitzeko lehen etxebizitzako jabeak, umebako senar-emazteak, oporretatik bezperan etorriak izango ziran seguruenik. Neskamegaz berba gixikoak, justu esana eutsien hamabost egunez Mediterraneoan zehar luxuzko itsas-bidaian ibiliko ziralara.

Etxera heltzeaz batera, eta senarrak kotxea garajetik ateraten eban bitartean, emazteak aginduak luzatu eutsazan hara eta honakoetan jantzi eta lurrintzen zan bitartean. Bezperan berandu samar heldu ziralara eta maletak bere hartan jarraitzen ebela, hau da, desegin barik eta batek daki barruan ahal zan moduan sartutakoa zelan egongo zan ordurako; badaezpada be, berak, Evek, ondo be ondo ezagutzen ebazan jantzi eta oinetako guztiak garbitzeko eta ezagutzen ez ebazanak, erosiak alegia, ondo gordetzeko; esku poltsan egoanari, opariak Everen ustez, ikuturik be ez egiteko. Etxeko atetik buruari buelta erdi emonda esan eutsan, azkenik, plastikozko poltsa zurian egoana beretzako oparitxoa zala.

Ikusminak jota bilatu eta zabaldu eban atoan ustegabeko oparitxoa. Zeramikazko platertxoa zan, itsaso-urdinez margoztua eta gainaldean *Souvenir from Crete* inoena. Platertxoa apurtu

ez eiten egunkari orritan kurioso-kurioso batuta etorren. Evek ez ekian grekoz baina emozionatuta oso hartu ebazan egunkari orriak esku artean. Emozinoak lagunduta ahalegindu zan irakurtzen eta ekimenaren ordainetan eta zenbaki ezagun batzuei esker *Athinai 16 septemvrios 1996* irakurri eban. Altxor preziatu modura gordeko ebazan egunkari orriok.

Evek grekoa deskubritu eban egunetik urtebete ingurura eguzkia zan nagusi Kretako zero urdinean. Ez egoan lainorik bistan ez eta uda sasoia amaierarantza joianeko lorratzik be, udatiar berantiarren pozerako. Dimitris Tsangarakisek bide estu, aldapatsu eta malkartsutik behera gidatzen eban turistaz beteriko autobusa. Itsas ertzean egoan Chora Sfakionera bidean joian, Imbros mendi-hegaletik beherantza. Horixe zan bere ohiko ibilaldia, hainbat urteren buruan gidari trebea izatera heldu zalako eta horrek bideorrek, horren bide estu eta malkartsuak, zinez, gidari trebe eta iaioa eskatzen ebalako.

Turistek Chora Sfakionen itsasontzia hartu eta beste herriska batera joan-etorria egingo eben eta Dimitris bertan egongo jaken zain bueltan. Bitartean deika egokon itsasoan bainua hartzea erabagi eban. Hantxe murgildu

eban gorputza, ertzeko ur berde eta gardene-  
tan. Buruz behera besakada batzuk emon on-  
doren, buelta emon eta hildakoarena egiten  
gelditu zan zeruari begira.

Begiak itxita, amesetan hainbat bider agertu-  
takoa berrikusi eban. Gaixo itxurako jendez in-  
guratuta bizi da, gaixoak eta bera ate bakarreko  
harresiek inguratzen dabez, harresia jarraituz  
ibili ezkerro zirkulu antzerako bat osotu daiteke,  
eta hori guztiori, era berean, itsasoak inguratzen  
dau. Egun baten, hesiok apurtuta, itsasontzi ba-  
tek daroa Dimitris umea itsasoz bestaldera.

Begiak zabalik emon eutsan jarraipena ame-  
sari. Berak jakin baekian itsasontzi harek bere  
famiarengandik banandu eta ordezeko fami-  
liarengana eroan ebala Kretako uriburura, He-  
rakteionera. Hango familiatzakoa ugaria zan  
ezkerro, Dimitris neba-arrebez inguratuta hasi  
eta hezi zan. Ez eutsien ez izenik ez abizenik  
aldatu, bere-berean onartu eben. Izan be, euren  
antzerako umeak, ahotik euren moduko ber-  
bak jaulkitzen ebazanak, maitasunaz gainera  
ez eban barririk ezer gehiago behar. Pozik go-  
goratzen ebazan umezaroa eta nerabezaroa.  
Aitaordeak tailer mekaniko baten jarduten  
eban, kotxeak konpontzen eta gidatzen. Inguru  
hori eban gustuko Dimitrisek be eta holan hel-  
du zan gidari trebe izatera.

Ezkondua zan eta hiru seme-alabaren aita. Berak eta emazteak, Susanak, gogor ekiten eutsien lanari, seme-alaboi heziketa ona emonda eurak baino etorkizun aberasgarriagoa izan eien. Nekazaritzaz gainera, Kreta olibondoaz eta mahastiz beteta ikusi eitekean eta, turismoak gero eta garrantzia handiagoa eban diru iturri modura, Kretak urtean hirurehun eguneko eguzkia eskeini eikean eta. Turismoari esker, lan egonkorra eta ondo ordaindua eban Dimitrisek.

Bainua hartuta barriro abiatu zan autobusera. Zigarroa ixetu eta autobusetako beste gidariekaz batera barriketari ekin eutsan. Eguneko gorabeherak, itxaronaldietako asperdura zelan uxatzen eban bako txak, neurribako turismoaren etorkizuna, holakoak erabilzan.

Turistarik gehienak alemaniarak eta ingelesak ziran. Bidaia-gidariei entzunaren entzunaz, Dimitrisek baekizan alemanieraz eta ingelesez berba apurren batzuk. Hori zala-ta, harrosko sentitzen zan bere barruan. Harroago ikusiko eukean etorkizuna seme-alabek inglesa eta alemaniera ondo be ondo ikasiko balebe, hizkuntzotan trebeak balira, inork ingelesez zein alemanieraz berba egiten entzuterakotan bertakotzat joko balitu. Horixe zan Dimitris iratzarriak bizi eban amesa. Bere seme-alabek,

gitxienez, autobus gidari mailatik bidaia-gidari mailarako saltoa egingo leukie, eta hortik aurrerakoa nork jakin.

Heldu ziran arratsalde erdian bueltan turistok, azal zuridun batzuk erreta, izerdiz eta egarritz erdi itota beste batzuk. Martxan jarri eta orain leku estu, aldapatsu eta malkartsutik gorako bideari ekin eutsien autobusek ilaran, pinu-prozesionarien antzera. Etxerako bidean irratiz iragarri eutsien Dimitrisi hurrengo egunerako plana aldatu eutsiela. Spinalonga ir-larako ibilaldia egiten eban gidaria gaixorik egoala eta, berak joan beharra eukala. Etxean emongo eutsan gainbegiratua bide-mapari, hurrengo egunean dana izango zan barri berarentzat eta.

Hurrengo eguneko bidaiari multzoan, azal zuri, ulegorri eta urdinduen artean, baegoan egon besteen aldean guztiz nabarmen agertzen zan andrazkoa. Azal ilunago, ule baltzago. Nabarmenena, baina, gaztaina ilun koloreko begirada eukan, harriduraz eta era berean lotsakor so egiten eban begirada sarkorra. Autobusean sartzetakoan Dimitrisen eta andrearen begiek bat egin ebenean, begiradei eutsi eta holako ezkutuko mezu bat bialdu eutsien batak besteari. Berebiziko ahaleginak egin ebazan

gero Dimitrisek atzeranzko ispiluan andrearen begirada bereganatzeko, alperrik baina.

Bidaia-gidariak eguneko egitaraua azaldu ondoren, Spinalonga irlari buruzko informazioari ekin eutsan. Labur esanda, historiak inoanez, veneziarrak Kreta menperatu ebenean sekulako gotorlekua eraiki eben bertan, inguruko itsas-lurrak eta ekialderako bidea babes-teko. Beranduago, Turkiaren menpean, turkiarrak kokatu ziran bertan, handik alde egiteko bape asmorik barik, nahiz eta gerora Grezia haren jabe izan. Mende honen hasieran Kretako gobernuak erabagi bat hartu eban: irla guztian zehar sakabanatuta eta izurritsutzat jota bizi ziran legenardun guztiak batu eta Kretako ekialdean urrinen dagoan Spinalonga irlan alkartuko ebezan, legenardunak gura ala gura ez izan, eta, han, osasun-zainketak, ospitalea eta etxeak eskeiniko eutsiezan. Bigarren helburu bat be baeban erabagi horrek: irlan legenardun kolonia bat ezarriko ebela entzundakoan, bertan egozan turkiarrek alde egingo eben beste barik.

Mende honetako berrogeita hamarreko hamarkadarako, legenardunik gehienak hilda egozan eta bizirik zirauenentzat baegoan egon tratamentu egokiagorik. Uste zanaren kontra, legenarrak jotako gurasoek ume guztiz osa-

suntsuak ebezan. Uste okerra jarraituz baina, umeok, ustezko kutsaduratik askatzeko, irlatik aldendu eta seme-alabatzat hartu gura ebezan gurasoei emon eutsiezan. Holan gelditu zan hustuta Spinalonga irla XX. mendearen erdi aldera. Eraikinen hondarrak zirauan gertakizun guztien lekuko bakartzat.

Evangelia, bidaia horretarako Evangelia Tsangarakis izena emon eban eta, ingelesez entzun eban bidaia-gidariak kontau ebana. Zerbait ulertuta, beste zerbait susmauta, Dimitrisek esandakoa mesedez grekora itzultzeko eskatu eutsan bidaia-gidariari. Entzun eta gero pentsakor gelditu ziran bai Evangelia bai Dimitris. Euren jatorriaz ekien apurra, amesetan agertzen jakenez lotu eben lehenengo, bidaia-gidariak esandakoagaz gero. Hari honetatik eta haretatik tiraka, azkenerako eho eben eho be euren bizitzako istorioa.

Turistek Spinalongarako itsasontzia hartu ebanean, Dimitris autobusean gelditu zan, hurrengoko baten irla bisitatzera bakarrik etorri behar ebala eretxita. Itxaroten eban bitartean, zer egin eta bidaia-gidariak bertan itxitako bidaiari-zerrenda irakurtzeari ekin eutsan. Atzeritarren izenekaz batera hantxe agertzen zan harrigarri Evangelia Tsangarakisena. Sekulako



taupada emon eutsan orduan bihotzak bularraldean.

Evangelia liluratuta etorren Spinalonga irlatik autobusera bueltan. Hori lilura hori mantentzeko Dimitrisi zuzendu jakon. Honek, bere ingeles apurragaz hasieran, bidaia-gidariaren laguntzagaz gero, haren izen abizenak zerrendan irakurritakoan susmau eta egiaztau izan ebana agertu eutsan. Bion berba jarioari amai-bakoa erexten eutsien inguruko entzuleek. Hareen bizitzako egunerokotasunak eta amesetako irudipenak kontau beharra! Beste barik neba-arrebak zirala erabagi eben arte. Besar-kada bero batek izenpetu eban neba-arrebata-suna.

Egunaren hondarrean, alkarri agur esatera-koan, alkarri helbidea eta telefonoa emon eta gero, Dimitrisek zera agindu eutsan Evangelia-ri, euren jatorriaz ahal ebanik eta gehiena jakiten ahaleginduko zala Grezian. Evangeliak zera eskatu eutsan Dimitrisi, bialdu egiazala ilobak Ingalaterrera, ingelesez hiztun trebe bilaka eta berari grekoa irakatsi eioen; hori bai, banan-banan bialdu egiazala, etxean lekurik sobran ez eukala eta.



**BADATOR, BADATOR ABIADURA  
HANDIKO TRENA**



Amaia arin-arinka doa kaleetan zehar tren-geltokira bidean. Estu eta larri begiratu deutso eskubitorreko erlojuari. Honek zazpirak hamar gitxiago dirala dinotso. Zazpirak hamar gitxiago, eta trena zazpiretan. Abiadan doa orduan. Arnasestuka eta bihotz-taupadak zoli, gorputza izerditan blai-blai sentitzen dau.

Ez deutso hain berandu izango zanik eretxi etxetik urtekeran auzoko Mariagaz bat egin eta berbetan hasi jakonean, alargundu danetik barriketarako beti prest dago eta Maria. Amaia gustura eta adi egoten jako, haren bakardadea arintze aldera.

Urrinera Atxuriko tren-geltokiko erlojutzarra dakus. Zazpirak hiru minutu gitxiago dinotso. Hartu dauan abiadeagaz semafororen bat gorri dagoala be zeharkatu dauala kalea uste dau, atzetik kotxeren baten klaxona entzun dau eta. Bildur-ikarak izerdi gehiago aterra deutso bere gorputz lastertuari. Geltokira sartu danerako zazpirak minutu bat gitxiago. Bere burua salbatuta ikusi dau. Egin-eginean baina trena hartu, hartu egingo dau.

Txartelak balioztatzen dauzan makinarentza hurreratu ahala, orduantxe konturatuko da ez daukala jagokon bidaia-bonoa eskura. Konturatzeko beste ikaratxo bat eragingo deitso gorputzetik zehar. Kartieran arakatu beharko dau txartel bila eta erraza dala emoten dauan arren ez da hain erraza izango. Izan be, kartieran hiru bidaia-bono ditu: alde batetik hirurak dira bardinak, zuri-urdirak, baina, bestetik, batek Durango-Bilbao jartzen dau, besteak Casco Viejo-Derio eta hirugarrenak, Amaiak behar dauanak, Bilbao-Bermeo. Hartan-horretan, eskuak urduri eta izerditan, txartelaren albo bietara begiratu, jagokon txartela aukeratu eta makinara sartzen doala, hara non entzuten dauan trenaren urtekera-txistua. Agur trenari!

Berehala joko dau iratzargailuak Amaia-aren logelan. Arnasestuka eta blai-blai eginda izartuko da eta amesgaizto bat izan daukala konturatuko. Ez dau trenik galdu. Eta ez dau txartel bila kartera arakatzen dabilelako trenik gehiago galduko, lehengo denporak ahaztuta, orain tren-konpainia bererako txartel bakarra jarri dabelako indarrean. Dutzatu, armozua egin eta kalera doa, lanera. Trenez joango da gaur.

Balioztatze-makinara heldu eta txartel bakar barri-barria sartu dau makinan. Berehala txis-

tuka hasi jako, pi-pi-pi-pi-pi, ez dau txartelik onartzen. Leihatilako langilearengana hurreratu, zer jazotzen ete dan galdetuko deutso. Langileak, txartela eskuetan hartu, eta, espantu aurpegiaz, zera dinotso:

–Baina zer txartel klase da hau, ez dago honako txartel bateraturik gure konpainian. Amesetan zagoz, ala? Zuok, emakumeok, beti amesetan!

–Eskerrak konpainiako gizonburuei, eskerrek euroi, gure eguneroko arazoak konpontzeko eta amesak egia bihurtzeko horren prest dagozalako. Non dago erreklamazio-orria? –erantzun deutso Amaiak.

Leihatilakoak ez daki zer esan, zer egin. Erdibidean harrapatuta dago.





**ATLANTIKOA EZ DA  
DANONTZAT BARDIN**



Hotza. Hotza egiten dau. Hotza sentitzen dau Obbeye Ndiayek bere azal baltzean. Itsasoko bits zuria azalaren baltzari itsatsita. Gorputza blai baina izerdirik ez. Ezpainak miazkatuz gatzaren zapore zuria dastatzen dau. Bestelakoa zan ezpainetako zaporea bere herrian, bestelakoak ziran Senegaleko zaporeak. Gazi-gozaok han, gezak eta mingotsak hemen. Itsasontziaren giza-metaketak arnasa hartzea bera be zaildu egiten dau, inguruko haize apurra barruratzeko be borroka ixila egin behar da itsasontzian. Horregaitik daroaz Obbeyek surziloak ahal dauanik eta zabalén. Eurotatik sartzen jako orain etxeko arroz piperminduaren usaina, min egiteraino sartu be.

Begiak itxiko ditu surretatik sartutako mina biguntze aldera. Ez ditu ezelan be surziloak itxiko, horrek heriotza erakarriko leuskiolako, eta berak ez ditu Sahel herrialdeak zeharkatu, harea-erauntsiek surra ia zarratzen eutsiela, ez da hareatzen markatutako heriotza-arrastoetatik iges ibili, itsasoaren urdina noiz ikusiko, surziloak libratuko deutzazan itsas brisa noiz

arnastuko, ez dau ez horren ibilbide luzea egin orain, oraintxe bertan, arrotz artean hilteko, itxita dituan begiak betiko itxiko deutzazan esku lagunik ez daukan unean hilteko.

Izan be arrotzak jakoz paterakideak Obbe-  
yeri. Bereiztu bereizten ditu azaleko baltzaren tonuak, hango hari be *serer* etniakoa eretxi deutso, horko horri bere etnia berekoa, *diola* etniakoa hain zuzen be, gizonezkoak gehienak, andra apurren batzuk, eurotariko bat haurdun, baina inork ez dauka ez izenik ez abizenik, ez deutso bata besteari berbarik esan, apenas begirada arinen bat paterakidegoa osatu danean. Baeuken izan zenbaki bana izenbako portuan izenbako paterara igon ahala izenbako patriiak atzamarrez emonda, baina nor gogoratuko da orain horrezaz, nork gura dau bere izena eta izana inork zenbaki huts batez gogoratu dagian. Gogoramena. Hotza egiten dau baina, burua eta garunak uzkuertzearaino, ezer gogoratzeko. Hobeto holan, min gehiago eragingo leuke eta orain herriminak.

Bidaia-lagunak egitea. Zaila benetan izenik ez daukanaren lagun egitea. Hobeto holan, zertarako bidaia-lagunak egin, egin eta gero bidaiaren lehen aukera bidaia-lagunak bertan galtzea bada. Bakarrik, bakar-bakarrik dabil-tza gosetetik iges tropelean doazen giza-  
seme-

alabak, basamortuan euron aurretik joandakoen arrastoari jarraitzen deusiela uste izango dabe, eurona geroago hareara-erauntsiak ezabatu daualarik, itsasoan aurreko paterakideen uhararen atzetik doazela uste izango dabe, baina aurrera begiratu eta inor be ez, atzera begiratu eta inor be ez, alboetara begiratu eta hobeto inor be ez, bizitza gogorra da, paterakide, itsasoz bestaldera heltzeko lehia bizian, danok gara lehiakide, paterakide.

Itsasoak kulunka bortitzean daroa paterea leporaino betea, gora eta behera intxaur-oskol hauskorra balitz lez, denbora luzez, paterakideek aurrean denbora baino ez dauke, berau neurtzeko ezer be ez –mendeetako euren pazientzia agorrezina baino ez, esango leuke azal zuridun ausartiren batek–, hala eta guztiz be luze eretxi deusi intxaur-oskol modura erabilitako denbora tarteari. Batak besteari ebatzea beste erremediorik ez dabe euki, lehenengoak bigarrenari, bigarrenak hirugarrenari, eta hola hurrenez hurren. Azkenengoak nori ebatu ez, eta bildur danean, hara hor non itsasoa errukitu eta baretzen dan, eta kulunka leunagoan daroan ontzia.

Begiak itxita, surziloak zabal-zabalik, oroi-menak berreskuratuta, kulunka leunean doa Obbe ye bera be. Herriko perkusio-hotsak,

danbor-hotsak entzuten dihardu, kulunkaren lagun, blaustada baten sartu jakoz belarri-mintzetatik, zurrunduta eta tolestuta etorren gorputza altzauarazo eta zutunik jarri dabe, Obbeye Ndiayeren aldaka-belaunak dantzan lehertu dira, atzera-aurrera, ezker-eskuma, bolada gozotsuetan, bere gorputzak ez dauka orain pisurik, eta bero, bero egiten dau orain, izerditan blai dago, herriko kaleetan lagunekin dantzan, ezpainak miazkatu eta musu emon barrikoaren zapore gazi-gozoa sentitzen dau, perkusino-hotsak entzuten ditu, ez ditu kulunka bortitzean darabilezan paterakideen oihuak entzuten, *sabar*-dantzan eta dantzan dabil.

Hotza. Hotza egiten dau. Hotzak dago Fatima Dieme. Eskua sabelera luzatu, eta hotza. Ezpainak miazkatu eta miazkatu dabil, hezetu gurean, siku-sikuak ditu eta, aho-zapaia bezalatsu, ura edaten emon deutsie, ugari eta fresko hori bai, baina bere gorputzak aspaldiko siketea jasandako belakia emoten dau emon, gatzgabetuko itsasoko ur amaiezinari berari be eskasa eretxiko leuskion belakia. Miazkatu eta miazkatu dabil beraz, gorputz barruko erreflexu loguratuak esnarazi eta norberaren txistu labaingarria sortu gurean, eta lortu lortuko dau azkenean.

Lasaituago, begiak zabalduko ditu. Gorputz baltza manta are baltzagoekin estalita euki arren, ez dau mantek emon leioen epeltasunik oraindino nabaritzen. Bere antzera, hainbat gizon-emakume dagoz, tapaki ilunetan batuta, horma kontrara jesarrita, hormaren zuri-zurirekin errebotean, geldi-geldi danak, begiak itxi-zabaldtu, zabaldtu-itxi, horixe da euron mobimentu bakarra, baltza-zuria, zuria-baltza. Besteren batek erabagita, kerizpetan egotea suertau jako Fatimari, baina hormaren kontra-ko lerrokadan eguteraan dagoan lekutxu bat ikusi dau ikusi eta haraxe egingo dau.

Hobera egingo dau eguzkiaren epelean. Apurka-apurka berotasuna igarriko dau gorputzera hedatzen, buruko azaletik oin-esku puntetaraino, berokuntza sistematik perfektue-  
nean. Eskua sabelera luzatu eta hantxe be berotasuna nabaritutako dau, nabaritu bizitza bari-riaren taupadak be nabaritzen dituala esango leuke, eta hori nabaritzeaz batera, ezpain-aur-  
pegi zurrunduek erlaxatu eta aspalditik egin-  
bako irribarrea egingo dabe. Berotasunak be-  
giak itxiaraziko deutzaz, lotarako bidean, ame-  
setarako bidean beharbada.

Eguzkia bere gorenerantz doa, zeruertzetik geroago eta hurrago, haren atzera salto egin gura baleu lez, arrastiriko eguzki printzek la-

rrosa kolorez zipriztintzen dabez zero eta laino zarpailak, arrastiriko larrosa ikusi daiteke Casamanceko palmondoen artetik mamuetara olgetan, azal zuridunen turismo katalogoetan arrastiri afrikartzat jo eta saltzen daben ikuspegia osatuz. Azal zuridunek ikusi ikusiko dabe arrastiri larrosa, mirestu egingo dabe, liluratuta geldituko dira eta arrastiri hori erretinan itsatsita eroango dabe euren etxeetara, han behin eta barrero ikusi eta eurenagaz alderatzeke, baina barruko begiekin ikusi, Fatimak eta azal berekoek baino ez dabe ikusiko, hareen begiek baino ez dabe benetan samintasunez oroituko, Fatimak, oraintxe bertan, eguzki epelean samintasunez amesten dauan bezala.

Ingurukoen hara eta honakoak aterako dau Fatima bere arrastiriaren larrosatik. Begiak zabaldu eta lasterrera zutunik jarriko da, hankak luzatu eta pixka bat ibilteko. Arrotz artean dabil, begiekin berba apurren bat egiten saiatzen da, halako baten bere hizkera dantzu, wolof hizkuntza, eta horrek etxetik hurrago dagoala emoten deutso, *Salaa maalikum!*, Kaixo! dinotso batek, eta berak, *Maalikum salaam!* Kai-xo zeuri be! erantzuten deutso, *Na nga def?*, Zelan zabilta?

Solaskideek esan deusienez Fuerteventuran dagoz, Fuerteventurako harrera-etxe baten. Fa-



timak ez daki jakin zer dan Fuerteventura, ezta non dagoan be. Jakin dakien bakarra zera da, ez zala eskolan ikusitako mapatan agertzen, beraz etxetik urrin samar behar dauala izan. Eskola. Pare bat urtez-edo joandako leku hari eskola deitu ahal bajako. Eurite sasoiaren bideak lokaztuta eta eskola izeneko lekua urak hartuta, ezin eskolara joan; lehorre sasoiaren hasieran, uzta-batzen lagundu behar etxean; lehorre sasoiaren azkenak baino ez ditu umeak hauts harrotuaren artean eskolara bidean ikusten.

Ez da harritzekoa, beraz, Fuerteventuraren barririk ez izatea, ez Fuerteventurarena ez beste edozein lekurena. Gosetetik bezalatsu, ezjakintasunetik iges doa Fatima Dieme, urak hartutako eta bertan behera itxitako eskolatik iges, pobrezian sartu eta mantendu dabezan benetako uzta-jabeen uzta-batzetik iges, eskulan merke, edo hobeto esanda, ordainbako eskulan izango diran umeak eta umeak erdituko dituan emakumea izatetik iges.

Igesean etorrela igon eban izenbako paterara izenbako portuan. Ez ekian zehazki nora eroian ontziak, baina hori bardin jakon, konforme gelditu zan izenbako patroiak itsasoz bestaldera eroango ebala esan eutsanean, horixe zan bere amesa eta. Heldu eta orduan jarri-

ko leuskio izena lehorreratutako lekuari, bardin jakon Fuerteventura edo Paris izan lekua-  
ren izena, leku horretan etxeko sentitzen ba-  
zan.

Hotza. Hotza egiten dau. Hotzak dago Awa  
Diakhate Lisboako portuan. Hoztuta dauka  
bihotza, portuan ikusten dan hozkailuren baten  
etorri barria balitz moduan. Eskuak bularrean  
gurutzatu, eskuak gorputzera luzatu, eta bar-  
din, oilo-ipurdia baino ez dau nabaritzen nahi-  
non. Dardarizo hutsean dago, gorputzak, bere  
uzkurdurekin barruko motorra piztu eta bero-  
tasuna hedatu gurean. Izan be abendua da, ne-  
gua, egundoko abendurik hotzena bertakoek  
dinoenez, eta Lisboan suertau behar Awa. Es-  
kas jantzita gainera, jagokon neurria baino bi  
gitxiagoko jantzi deigarri eta farfaildunek  
erdi-estaltzen deutsie gorputza, ez bere gustu-  
ra, halabeharrak aginduta baino.

Lan egin behar dauan garitoko kearen keaz  
ito beharrean, handik iges egin eta portura jo-  
atea otu jako otu, itsasotik datorren haize fres-  
koa zabal-zabalik daroazan surziloetatik ar-  
nasteko asmoz, oxigeno faltaz zorabiatzear da-  
goala, aurpegi higatua itsas haizeari eskaini eta  
suspertzeko asmoz. Gaua da, gau hotza, ez da  
kalean inor agiri, bere kerizpeari berbetan ja-

bilkon bakarti atsekabeturen bat izan ezik, ez da zaratarik entzuten, alkoholak zapal dutako azeleragailuren baten kirrinka-hotsa apenas.

Hau paraderoa, dinotso Awak atrakatze-lekuan jesarrita ontziaren kontra jarrita daukan bere buruari. Ontziaren kulunka apurka-apurka gorputz osora hedatuko jako, lo-kantarena egingo deutso harik eta hotz-uzkurdura batek lozorro antzean murgilduko dauan. Lozorro horretan be zain dauka Senegal. Han, zer esanik ez Salyn, bere herrian, bero-beroa izaten da abendua, lehortearen sasoi betea. Amak daroa bizkarrean oihaletan batuta Awa txikia, hantxe hartuko dau lo gozoa, amaren berotasuna aurretik eguzkiarena atzetik, amaren alda-ken gorabeherek kulunkatuko dabe kakahuete-batzen zein *sabar*-dantzan dabilela, eta oihalotan batuta gurako leuke gura hamabost urte besterik ez daukan Lisboako Awak.

Salyko hondartzak harea fin eta zurikoak dira, oinazpiek bigun zapaltzen dabe hango beroa sasoi hasieran, baina abendurako, goidenboraldia bete-betean dala, hotzetik iges eta haragi beroaren bila doazenek ondo be ondo zapal duta dauke harea finori, baita harrapatzen daben beste guztia be. Hondartzan hasten da harrapakarien hedapena, begiz eta gurariz jota aukeratzen dabe euron harrapakina, horretara-

ko prozesuan zehar arraza baltzaren harrigarriak gorai patuz, “begira zelako eperdi-masail tenteak!” eta antzerakoak, “gure herrietako andra zurienak aldatz behera doaz” esan eta barre-algarak eginez, zilbot koipeztuei eutsi ezinik egin be. Hondartzan ikusi eta aukeratzearen hurrengo pausoa han-hemenka zabal dutako night-club eskas argiztaturen baten harrigarriak igurtzea da, diruaren txintxin-hotsa poltsikoan, harrigarrien gorai-pamena belarri gosetietan noizbehinka xuxurlatuz.

Holako xuxurlak entzundakoa da Awa 1841. urtean sartutako kakahuetearen nekazaritza bakarrak ahituta itxi dauan lurraldean. Kakahuetea ez da nahikoa etengabe jaiotako umeak janaritzeko, haren prezioaren beherakadak pobrezia, oraindino eta pobrezia handiagora eroan ditu bertako nekazariak eta irabazi handiagoko zereginetara inbertitzaileen dirua. Lur-higatuta dakus Awak bere herria, ume-erditzetik eta kakahuete-batzetik higatuta ama, aitaren enegarren emazte izatea beste etorkizunik izan ez dauan ama, gosetearen eta etsipenaren orroa dantzu erraietan.

Orroari erantzunez eta etorkizun ilun horretatik iges sartuko da Awa Diakhate Salyko merkatuan, enegarren emaztearen enegarren umea izateak dakartson maitasun eskasiak

atzetik bultza egiten deutsalara. Hantxe entzungo dau entzun Lisboaraino eroango dauan xuxurla, Joaquim izeneko batek bereganatu eta gero xuxurlatua, xuxurlatu eta gero Awarren bihotz katigatuaren ekinaren ekinez presaka paper-punta baten zirriborratutako xuxurla, Joaquim A., eta Lisboako helbide bat.

Paper-punta hori izango dau altxor bakar izenbako portuan izenbako paterako enegarren kide modura doanean. Berak bakarrik dakien lekuan dakarren papera, *sabar*-dantzariaren aldakadak patera urperatzeaz jarri eben unean estu-estuan gorde eban paper-punta berbera atera eta bertan zirriborratutako helbidera joko dau. Bertaratu eta txirrinari jo eta jo ekingo deutso. Bestaldetik ixiltasuna besterik ez. Berlarria atearren kontra jarri eta ez da ezer entzuten atez bestalde. Etsipenez saka eta saka txirrinari atzamarra bertatik altzau barik, harik eta txirrin-hotsak auzokoaren atea zabaltzen dauan arte. Paper-punta auzokoari erakutsi eta honek ezetz, pisu horretan ez dala inoz Joaquim izenekorik bizi izan, pisua urteetan hutsik dagoala gainera, hau guzti hau dinotson bitartean auzokoak goitik beherako begirada susmagarria luzatzen deutsalara.

Erantzunbako txirrin-hotsori oroimenean markatuta dauka Awak eta behin eta barriz en-

tzuten dau bere amesgaiztoetan. Holakoxe baten barruan dago orain Lisboako portuan, atrakatzek lekuan jesarrita, ontziaren kontra burua jarrita. Atea zabalduko deusie oraingoan, esku baltz batek zabalduko deutso, ez dau haren aurpegirik ikusiko, haren ahots gozoa eta be-roa entzungo dau, zera dinotsola, “hator, hator neska etxera, hartu eina itzulerako patera”, eta Awak, “gaur ez, bihar beharbada, orain hotz handia egiten dau eta”.

## AURKIBIDEA

Doinu ederra dantzut oroimenean . . . . .	7
Bihotz beiratuén melodia . . . . .	23
Argazkiko erdi ezezaguna . . . . .	35
Canterburyra bidean . . . . .	43
Ingeles bat, eta gero beste bat, Bilbora etorri ziranekoa . . . . .	57
Emiliaren zain . . . . .	65
Itsasotik datorkenari begira-begira . . . . .	83
Idazle logabearena . . . . .	95
Geure auzoan jazo zan . . . . .	109
Ur gaineko lur mobikorrak . . . . .	123
Badator, badator abiadura handiko trena	139
Atlantikoa ez da danontzat bardin . . . . .	145

